

**hh**  
**hik hasi**

**170**

**4 EURO • 2012KO UZTAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA**



**XIII. Hik Hasi Udako Topaketa  
Pedagogikoak**





5 - 6 urte

6 - 7 urte

7 - 8 urte

8 - 9 urte

9 - 11 urte



5 - 6 urte

5 - 6 urte

7 - 8 urte



6 - 7 urte

8 - 10 urte

10 - 11 urte

11 - 12 urte



5 - 10 urte

5 - 10 urte

5 - 10 urte

6 - 10 urte



Oporretako koadernoak **ekar**

# aurkibidea



**6**  
gaia

## 1512-2012 NAFARROAKO KONKISTA

Historiaren bertsio ofizialak ezkutatu eta desitxuratu duen memoria ezagutarazteko lanean dabil Nabarralde. Eskolan gure historia ezagunagoa izan dadin, hainbat gogoeta eta baliabide dituzu, historiaren beste kontaketa bat egin ahal izateko.



**14**  
elkarrizketa

## ANA CASAS ETA LEIRE DARRETXE

Lehenik eta behin, aniztasunaren argazki bat egin behar dela diote, eta, argazki horretan, desgaitasunak, jatorri-ugaritasunak, genero-desberdintasunak eta beste hainbat alderdi sartuko lirateke.

**5** editoriala

**6** gaia

1512-2012 NAFARROAKO KONKISTA ETA MEMORIA HISTORIKOA

**14** elkarrizketa

ANA CASAS ETA LEIRE DARRETXE

Hainbat Ikastaro

**22** Nire ikasleekiko harremana. Arantzazu Loidi

**23** Ahotsaren erabilera egokia. Jaione Txapartegi

**24** Gure adimena nola gidatu ikasten. Urko Arozena

**25** Eguneroko emozioak. Ibon De La Cruz

**26** Coaching. Mirari Bereziartua

**27** Ez dut zigortu nahi. Nerea Mendizabal

**28** Ikasleak, beren guraso eta familien isla. Eduardo Ibarria

**29** Irakurketa, bizitza osorako bidelaguna. Elena Laiz

**30** Euskara proben eraikuntza. Iñaki Pikabea eta JF Lukas

**32** Gortasunaren erronkak. Ander Azkarate eta Mireya De Castro

**33** NitikGura. Idazketa sortzailea. Yolanda Arrieta

**34** Matematika, material manipulagarriekin. Karlos Garaialde

**36** Ipuinak antzerki bihurtzen direnean. Ixabel Millet

**37** Txotxongilo tailerra. Alazne Ugartetxea

**38** Yoga irakasleentzat. Marina Pintos

**39** Haurrentzako masajea. Ramon Mauduit

**40** Irakasle magoa (majoa). Zigor Urzelai

**41** Txantxarien jolasak. Urtxintxa

**42** galdeidazue

Publizitate-kanpaina hezitzaile ikuspegitik? Nerea Garmendi

**46** atzeko atetik

Pablo Feo

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Graf!k. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-06-20). Kopurua: 5.000 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



# Harpidetza



**hik hasi<sub>k</sub>**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitetz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararutzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

<b>Izena</b>	<b>1. Deitura</b>
<b>2. Deitura</b>	<b>Telefonoa</b>
<b>Helbidea</b>	<b>Posta Kodea</b>
<b>Herria</b>	<b>Herrialdea</b>
<b>Lantokia</b>	<b>Lantokiaren herria</b>
<b>IFZ-NAN</b>	<b>Posta elektronikoa</b>

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<b>Entitatea</b>	<b>Sukurtsala</b>	<b>K.D.</b>	<b>Sinadura</b>												<b>Zenbakia</b>				

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala uztaila

## *Posible al da Udako Topaketa Pedagogikoak antolatzea 5.000 euroekin?*



***Krisia, ekonomikoa eta balioena, garai egokia izan liteke zein diren behar-beharrezko gauzak bereizteko, lehentasunak finkatzeko, eta benetan balio duten haietan atentzioa jartzeko.***

5.000 euro. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak *bik hasiri* egokitu dion kopurua 2012ko Udako Topaketak antolatzeko.

Anjeles Iztueta izan zen EAEko lehenengo Hezkuntza Kontseilari emakumea. Haren esanetan, bitarteko eta diru gutxirekin gauza asko egiten zituen *bik hasi*. Bigarren Hezkuntza Kontseilari emakumea 2009an izan zen izendatua. Sartu bezain pronto, 14.000 eurotik 9.800ra jaitsi zion *bik hasiri* Topaketak prestatzeko laguntza, eta kopuru horren bueltan ibili zen hurrengo bi urteetan. Aurten, aldiz, erdira jaitsi du (10.000tik 5.000ra).

Hezkuntza gizarteak aurrera egiteko inbertsiorik emankorrena dela, prestakuntzak garrantzia handia duela, krisiari aurre egiteko ikasketak eta heziketak ezinbestekoak direla, eta abar esaten da. Europan egindako ikerketek zera ondorioztatu dute: hezkuntzan inbertitzen den euro bakoitzeko lau euroko errentagarritasuna sortzen da.

Datu horiek guztiak ezagututa, zer-

gatik egiten dira halako murritzeta batiak? Ez, ez du balio beste alde batera begiratzeak, Eusko Jaurlaritzaren esku baitaude “hezkuntza eskumenak”.

Aginte kargutan nor dagoen eta zer sentzibilitate duen badu bere eragina. Gogoan dugu Udako Topaketak prestatzen ari ginen hastapen haietan, nola jo genuen Gipuzkoako Foru Aldundira, eta nola hartu gintuen Lorea Leanizbarrutia euskara zuzendariak. Loreak zioenez, ona zen prestakuntza euskaraz eskaintzea. Dena erraztu zuen: 12.000 euroko dirulaguntza emateaz gain, Topaketei ongietorria emateko eta hasierako hitzaldia egiteko utzi zuen Foru Aldundiko areto nagusia.

Urte batzuk pasata, postu bera bete zuen beste “euskalzale” batek uko egin zion hasierako ekitaldia egoitza hartan egiteari. Eta, duela hiru urte, Lorearen alderdikide batek dirulaguntzen deialditik at utzi zituen Topaketak.

Udako Topaketa Pedagogikoak egin diren 13 urtetan, Donostiako Udala izan da instituziorik erregularrena.

Ona eta behar-beharrezkoa da inguruan gertatzen ari dena ezagutzea. Baina, hezitzaileok, gure ustez, ezin dugu ezagutza hutsean geratu. Hezitzaileak ezin du ilusioa galdu, jendartea hobetzea izan behar du helburu: herri identitatea, elkartasuna, elkarlana, behar handiena dutenei laguntzea, errespetua, pentsamendu askea eta kritikoa, eta abar, garatzeko konpromisoa izan behar du.

Krisia, ekonomikoa eta balioena, garai egokia izan liteke behar-beharrezkoak diren gauzak bereizteko, lehentasunak finkatzeko, eta, benetan balio duten haietan atentzioa jartzeko; hausnartzeko, eztabaidatzeko, besteak entzuteko, gure iritzia eskaintzeko.

Egiteko horretan, elkarrekin aritzea, parte-hartzea, lan egiteko eta funtzionatzeko erak demokratizatzea, gardenak izatea eta zer herri mota nahi dugun argitzen joatea oso lagungarri lirateke, jendarte berria, hobea eta libreagoa lortu nahi badugu, behintzat.

# GAIA

## 1512-2012 Nafarroako konkista eta memoria historikoa





## Gure historia birkontatzeko beharra

**Urteurrenez beteta dator aurtengoa: Gernikako bonbardaketak 75, Nafarroako konkistak 500... Horien karietara hainbat ekimen antolatu dira. Guztietan nabarmen ageri da, oro har, ezer gutxi dakigula gure historiari.**

**Historiaren bertsio ofizialak ezkutatu eta desitxuratu duen memoria ezagutarazteko lanean dabil Nabarralde: *hik hasik* antolatu duen ikastaroan Nafarroako Erresumaren konkistaren gaineko zertzeladak eskainiko dituzte. Aukera baliatuta, eskolan gure historia ezagunagoa izan dadin, hainbat gogoeta eta baliabide dituzu ondoren. Historiaren beste kontaketa bat egiteko, funtsezkoak.**

Zer ikasten dugu eskolan Euskal Herriko historiari buruz? Zer dakigu gure historiari buruz? Zein da eskolan gure historiari egiten dugun kontaketa?

Joseba Sarrionandiak egindako hausnarketa argigarri gerta dakiguke: "Historia inportantea da. Mila aldiz idatzi da lurrian, geure oinen azpian, eta mila bider ezabatu da. Harrigarria da nola borrotzen duten botereek historia.

Ingalaterrako *ziklo arturikoa* interesgarria da, *Mio Cid* edo Errolanen epopeiak bezala, boterearen mitoa ezagutzeko. Harkaitzetatik ateratako ezpataren metafora hori, esate baterako. Baina ze gizalege ekarriko du ba harri gogorretik ateratako ezpatak? *Power Rangers*, irabazleen memoria, ume ipuin lotsagarriak, menperatzaileen historia.

Harrokeria horrek egonezina sortzen dit. Nik jende xehearen historia ezagutu nahi nuke, gizaki umilen boza entzunez sentituko nintzateke gustura. Handikiena baizik ez da entzuten, eta hauek gauza bera diote beti. Erraza da laburbiltzeko: "dena neuretzat, eta zuentzat ezer ez". Jende umilak ezin izan du, zoritxarrez, ia ezer idatzi historian. Hauen erantzule sentitzen naiz handikien historiak entzuten ditudanean.

Jakitea oroitzea da, memoriarik iza-

ten ez duen jendea zozoa izaten da, garrantzia duen ezer egiteko inkapaza. Etorkizuna iraganetik dator, menperatzaileen historia galtzaileen memoria eskasean oinarritzen da". (*Hausnart* aldizkaria, 0. zenbakia).

Gure historia kontatzeko dugu oraindik. Lehendakari Jose Antonio Agirrek halaxe idatzi zuen 1946an, erbestean Estatu Batuetako argitaletxe baten eskariz idatzi zuen liburuan: "Gure historia ttipitzen saiatzearen poderioz, ulertezin bilakatu dugu ikertu nahi gaituztenentzat".

Eta egin behar dugun lana da, euskaldunok biziraungo badugu, historia-lari eta etnografo Jimeno Jurio zenak 2001ean esan bezala: "Memoria historikorik gabeko herri bat, informaziorik gabea, bere baloreak eta identitatea ezagutzen ez dituen kolonizatua izateko soroa da [...] Bere iragana, bere nortasunaren ezaugarriak funtsezkoak ezagutzen ez dituen herria txo-txongilo bat izango da, edonork nahierara erabili ahalko duena".

Eskolak badu erantzukizunik gure historiaren kontaketa. Haatik, ez da lan erraza; hainbeste urteetako ilunpea ez da alferrik izan. Zorionez, han eta hemen sortutako ekimenek egin dute argia lan horretan.



# 1512-2012 Nafarroako konkista

## “Historiak berak erakusten digu non dagoen egin duten interpretazioaren akatsa”

1512ko data memoria kolektiboan il-tzaturik geratu da, estatuaren, independentziaren eta subiranotasunaren galararen erreferente gisa. Ordukoa, Nafarroako Erresumaren amaiera ekarri zuen konkistetako bat da; ez bakarra, ordea. Gertaera historiko hark, gaur egunera arte iritsi diren ondorioak izan zituen.

Nabarralde memoria historikoa lan-tzen duen taldea da. Talde horretako kide dira Beñi Agirre euskara-irakasle eta historialaria eta Angel Rekalde soziologian doktore eta Nabarraldeko zuzendaria; biek eskainiko duten ikastaroan, gure historiaren hastapenetik gaur egun arte mugarri izan diren gertakizun historikoen kontaketa egingo dute, eta ikuspuntu soziologikotik gertakizun horien ondorioak azalduko dituzte, hurrenez hurren.

### Historia ofizialak dio Nafarroa borondatez gehitu zela Gaztelara...

Konkistaren urteurrenari esker, jendartean argi geratu da orain arte eskainitako bertsioa, ofiziala, ez dela bertsio bakarra. Bi urtean, harrigarriki, bertsio



Angel REKALDE

ofiziala erori egin da. Izan ere, bertsio ofizialak ezkutatu egin du garaiko dokumentuek, Gaztelako kronistek, eta abarrek ziotena: gerra izan zela eta okupazioa izan zela. Ezkutatu nahi horren adibide garbia da Idoia Arrietak Getariako (Gipuzkoa) artxiboan aurkitu zuen dokumentua: historialari gehienek ezagutzen duten arren, ez dute aipatu ere egin, eta izenburuan konkista hitza agertzen denez, moldatu egin dute, izenburutik desagertzeko. Oriaren ertz batean, gainera, “Ojo, habla de conquista” oharra du idatzita. Horrek guztiak kontzientzia ematen dizu boterea izan dutenek, konkistatu zutenek,



Beñi AGIRRE

garbi zekitela zer egiten zuten eta nola manipulatu zuten gure memoria historikoa.

Historiak berak erakusten du non dagoen interpretazioaren akatsa. Badago nafar estatu bat: lehenengo Iruñeko Erresuma izena zuen, Nafarroako Erresuma gero, eta estatu batek izan dezakeen kompetentzia edo ezaugarri guztiak ditu. Badago, beraz, abiapuntu bat, batasun bat. Eta nola desegin zen batasun hori? Alboko bi estatuen konkistarengatik desegin zen, hori da arrazoia, eta mendez mende luzatu den prozesua da.



500. urtea




700. urtea



800. urtea

www.euratlas.com





**Zuen helburuetako bat da Nafarroaren, Euskal Herriaren, historia ezagutztea, manipulazioetatik haratago. Zein dira manipulazio horren gakoak? Zein da historiaren zuen irakurketa?**

**Nafarroa izan da azken 15 mendeetan Euskal Herriaren ardatza edo zentralitatea:** gure historia kontatzerakoan, kobazuloen garaietatik karlistaldietara salto egiten da. Itzali duten garai horretan, estatu politiko bat izan zen, eta euskaldunok antolatuta egon ginen, Nafarroa izan zen, beraz, gure estatua. Euskaldunentokia, hortaz, Nafarroa da, eta hori garbi zeukaten aurrekoek. Nafar

bezala antolatu dugu guk geure burua mendeetan, estatu bezala. Memoria horiazken bi mendeetan kendu digute.

Estatuak nazionalizatzen du herria: haren hizkuntza babesten du, eta ohi-turak, merkaturia eta ekonomia bat ematen dizkio, oinarri fisikoa eta materiala ematen dio, antolakuntza. Hamar mendeetan Nafarroak antolatu du gure herria. Horren erakusgarri da Nafarroako Estaturik izan ez duten euskal lurraldeetan euskara desagertzea, Aragoiko edo Akitaniako kasuetan bezala. Lur horietan botere politikoa galdu zen, eta euskara ez zen babestu.

**Bere buruari antolaketa ekonomikoa, politikoa, estrategikoa eta abar eman dion herria gara:** Espainiako Erresuma eta Frantziako kanpotik etorritako inbasioen ondorioak dira, bisigodoen eta frankoen inbasioen ondorioak, hain zuzen. Baskoien herria, berriz, bertako kultura eta hizkuntza duen eta habitat konkretu batean dagoen herri baten garapena da. Horrek bereizten gaitu aldamenean ditugun beste bi herrietatik, haiek bisigodoen, frankoen eta karolingiarren kulturetatik eratorriak baitira. Lurralde hori, habitat hori, baskoien habitata da.

Hemen, behetik egin dira herria eta estatua, eta, horren ondorioz, neurri handi batean, eutsi egin diegu bertako ohiturei, sinesmenei, eta abarri. Horrek bestelako joera ematen dizu barneko eta naturarekiko harremanetan, eta abar. Horren isla dira foruak, laneko kultura, eta abar: hori guztia mende mende garatu da, beste herrialdeen ondoan prozesu desberdina da.

Estatu guztiek dute beren proiektu historikoa, Gaztelak bazuen berea, eta guk bestelakoa izan dugu. Euskaldunek parte hartu zuten gudetan, baina euskaldunak zeuden lurretan geratu ziren. Borrokak izan zituzten Gaztelarekin, baina sekula ez ziren joan Gaztela inbaditzera.



# 1512-2012 Nafarroako konkista

**Euskaldunek ez zuten sekula itunik egin:** hainbat mendean erresistentzia izugarria erakutsi dute euskaldunek. Gerra guztiak, inbasioak, konkistak, dena galdu zuten, eta, hala ere, mendietan eutsi zioten: Malmasinen, Aralarren, Pirinioetan, eta abarretan. 1054an, Gaztelak mendebaldeko lurak konkistatu zizkion Nafarroari. Lau mende eta erdi geroago konkistatu zuen Nafarroa Garaia, eta, bitartean, gerrak izan ziren, etengabe. Gaztelak zortzi mende egin zituen errekonkistan mairuen kontra, eta euskaldunak ere erresistitzen ari gara mendezmende.

**Foruak ez dira subiranotasunaren ikur, erresistentziaren isla dira:** inbasioa eta mendekotasuna onartzen ez zutenekin akordio batera iritsi nahian eman ziren foruak. Subiranotasunaren eta erresistentziaren hondarra dira, baina irabazle-galtzaile testuinguruan. Izan ere, itunak konkista gertatu eta mende eta erdi geroago egin ziren.

**Hitzetik hortzera dabil jendartearen "memoria historikoa" hitza. Ba ote dakigu, ordea, zein den benetan hitz horren dimentsioa?**

Ikastaroan ikusiko dugu zer den eta nola lantzen den. Hori guztia beharrezkoa da, zer ikuspegi ematen digun eta



zer-nolako eragina daukan ezagutzeko. Azkar esanda, zure errealtateari buruz, zure jatorriari buruz, zure iraganari buruz egiten duzun irakurketa da, gaur egungo arazoak nondik datozen ulertzeko. Esaterako, 36ko gerra oso gogorra eta oso krudela izan zen guretzat, baina guk independentzia galtzea, adibidez, estrategikoki, herri bezala, gure etorkizunerako, gure errealtaterako, askoz larriagoa, eraginkorragoa, izan zen.

Konkistaren urteurrenak hainbat prozesu abiarazi ditu. Dituzun erreferentzien arabera, ikuspuntu desberdinez ulertuko duzu gertatutakoa, errealtatea modu batera edo bestera ulertzen baita. Erantzuteko formula ere desberdina izango da, ondorioz. Ge-

rrako memoria historikoa azaltzen duzunean, gerra aztertzerakoan, ez duzu horrelakorik pentsatzen: "gu, gaiztoak, ze mina..." Ez, jada beste plano batean zaude: hori nire historia da, nire errealtatea, orain ulertzen ditut hainbat gauza. Hori da, batez ere, ikastaroan azalduko duguna, memoria historikoaren dimentsioa, eta gero joango gara datuetara.

**Landuko dituzuen gaien artean oroimen-lekuak daude, termino hori ez da hain erabilia, akaso.**

Oroimen-lekua, gure iraganaren eszenatokia, gure historiaren gakoak oroitzea, mantentzea eta hedatzea ahalbidetzen duena da. Beste era batera esanda, erreferentzia eta memoria aldetik identifikatzen gaituen ondarea da. Gazteluen gaia: adibidez, zergatik Euskal Herrian apenas dago gaztelurik? Gazteluak erreferenteak eta memoria lekuak direlako. Gaztelu bat zutik ikusten badugu, eta baldin badakigu gaztelu hori Nafarroako Estatu ginenean egindakoa dela, Gaztelako Erresumatik defendatzeko, hain zuzen, ez duzu azalpen gehiago behar. Hor daukazu kontaketa. Ez zituzten alferrik suntsitu, haiekin desagertu baitzen gure kontaketa: gaztelua ez badago, ez duzu nora begiratu, ez dago ezer. Gazteluak Frantziako eta Espainiako Estatuetan daude.



1.400. urtea



1.600. urtea



2.000. urtea

www.euratlas.com





## Eskolan kontatu ez dizkiguten 7 gauza



### 1. Nafarroaren konkista bereziki kru-dela izan zen.

Dokumentuetan aurkitutako datuen arabera, Noaingo sarraskian soilik, Gaztelako armadak 5.000 lagun baino gehiago hil zituen. Amaiurko gazteluko defendatzaile Jaime Velaz de Medrano eta haren seme Luis kartzelan pozoitu zituzten, gaztelarrek bizitza errespetatuko zietela agindu ondoren. Nafarroako Pedro mariskala ere hilda aurkitu zuten Simancaseko (Valladolid, Espainia) gazteluan: bost urte zeraman Errege-erregina *Katolikoei* men egitea ukatuz. Arrazoi bera zela medio, Donibane Garaziko defendatzaile Joanicot arrastaka ibili zuten Iruñeko kaleetan zehar; hil eta gorpua harresietatik kanpora bota zuten. Nafarroa Beherean, berriz, emakumeak bortxatu egin zituzten soldadu gaztelarrek.

### 2. Iruñea mehatxu izugarrien bidez zanpatu zuten.

Albako Dukeak 12.000 gizoneko armadarekin inguratu zuen Iruñea 1512an. Herriak 8.000 biztanle zituen. Amore eman zuten gaztelarren mehatxu beldurgarrien aurrean.

1521ean, gaztelarren aurkako al-

txamenduan, jendetza handi batek erregeordeak okupatutako jauregia eraso, eta Gaztelako errege-etxearen ikurrak lokaztu zituen. Gaztelarren errepresioaren erakusgarri, Miguel Bertizkoa iruindarrari gertatutakoa: labanaz zintzurra moztu eta burua ebaki zioten, hiriarren askapenaren ospakizunetan Gaztelako erregeorde eta Naiarako duke zenaren mandoan ibiltzeagatik.

### 3. Nafarroak konkista arbuia zuen.

Leinu nahiz dinastien arteko borroketatik haratago, nafar herritarren gehiengo zabalak konkista arbuia zuen; horren lekuko dira 1516ko hirien altxamenduak eta 1521eko askapenaren herri-ospakizunak. Era berean, Veneziako enbaxadore Gaspar Contariniren arabera (1525): “Universalmente, todos los de este reino tienen odio a los españoles”; edo kardinal Cisneros-en arabera: “Según ha parecido, casi no había persona en aquel Reyno (de Navarra) de quien nos pudiésemos fiar”.

### 4. Konkistak ondorio dramatikoak izan zituen Nafarroarentzat.

Errege-aldaketa izan zen nafar herritarrentzako garrantzi gutxien izan zuen ondorioa. Larrienak hauek izan ziren: nafar estatuaren independentziaren galera; okupazio-armada baten ezarpena, mende batez, gutxienez; Nafarroaren pobretzea, gerrako kostuen, ordainen eta Nafarroa Beherearekin salerosketa egiteko debekuaren ondorioz; Inkisizioaren eta “sorgin ehizen” sustapena; eta euskararen bazterketa.

### 5. Nafar jauntxoak: Nafarroaren ize-nean Errege-erregina *Katolikoei* fideltasuna zin egitera behartuak.

Konkista militarren ostean, gaztelar erregeordeak Gorteak deitu zituen, Errege-erregina *Katolikoei* men egin eta, era horretara, inbasioa legitima zezaten. Gorteen bilera horretan, Gaztelaren inbasioa babestu zuten beaumontarrak besterik ez zeuden, Errege-erregina *Katoliko*en azken asmoa Nafarroaren independentziarekin betirako amaitzea zela susmatu gabe. Aliatuekin egon arren, gaztelar erregeordeak heriotza-mehatxua egin zien.

### 6. Nafarroa indarrez lotu zuten Gaztelara.

Nafarroak, formalki, erresuma izaten jarraitu zuen, baina, armen indarrez, estatu independente izateari utzi zion. Nafarroa Gaztelan sartu zuten, nafarren borondatea aintzat hartu gabe, Fernando erregeak 1515ean Gaztelako Gorteetan bultzatutako alde bakarreko ekitaldian. Erabaki horretan ez zuten parte hartu ez Nafarroako eliteak ezta herritarrek ere.

### 7. Espainia eta Frantziaren inperialismoaren biktima izan zen Nafarroa.

Karlos III.aren eta Zuria Nafarroakoaren hilobian grafikoki irudikatuta dago konkistaren afera: bi txakur (Frantzia eta Espainia) lehian dabilta hezur bat (Nafarroa) nork harrapatuko. Gaztelak lortu zuen zati handiena: 1200ean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxa konkista zituen; eta 1512an, Nafarroa Garaia. Frantziak bereganatu zuen 1620an Nafarroa Beherean bizi-raun zuen estatu txikia.

# 1512-2012 Nafarroako konkista

## Konkistari buruzko unitate didaktikoa

Ikaslekar argitaletxeak eskolan 1512ko konkistaren gaia lantzeko bi euskarri argitaratu zituen 2011ko Durangoko azokarako. Alde batetik, *1512 Nafarroa amets urratua* komikia, eta, beste alde batetik, *1512 Nafarroaren konkista* unitate didaktikoa. Hala, Nafarroaren konkistaren errealitateari “beste ikuspegi” batetik begiratzeko aukera zabaldu zuen. Bi proposamen horiek egokiak dira DBHn lantzeko.

### **1512 Nafarroaren konkista**

Liburuxka bakarrean Nafarroako Erresumaren historiako zertzelada batzuk eskaintzen zaizkie ikasleei, 1512ko inbasioan arreta berezia jarriz, betiere. Halaber, Nafarroaren konkistaren aurrekariak eta ondorengo bilakera ere aipatzen dira, ikuspegi zabala eskaintze aldera. Zazpi ataletan banatuta dago lehen zatia:


1. Aurrekariak.
2. XV. mendea: badaezpadako garaia.
3. 1512ko konkista.
4. 1516ko berreskuratzeko saioa.
5. 1521eko errekonkista.
6. Amaiurko gaztelua.
7. Nafarroaren ondorengo bilakera.

Unitate didaktiko laburraren azken zatian, neska-mutilei lehen zatiko edukia barneratzen lagunduko dieten ariketak daude.


### **1200eko konkistari buruzko unitatea bidean**

Ez zen 1512koa izan, ordea, Nafarroako Erresumak pairatu zuen lehen konkista. Jada hirurehun urte lehenago, 1200ean, hain zuzen, jasan zuen

beste konkista bat, eta Nafarroak itsasora zituen bideak galdu zituen. Konkista



hori landuko duen unitatea prest izango da 2012ko Durangoko azokarako.



## Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarra: konkistaren ondorioak

Nafarroako Erresumakoak denboran urrunekoak diren kontuak izan ditezkeela pentsa liteke. Hala ere, Rekalderen hitzetan, “konkista ez zen izan kontu puntual bat: izan zituen bere ondorioak, eta horietako batzuk gaur egunera arte helden dira”. Horregatik, pentsatzen du interesgarria dela eztabaida jendarteratzea.

Eztabaida horretan sakontzeko, aurtan hirugarrenez antolatu du Nafarroaldeko historialarien biltzarra. Biltzar horretan, Nafarroako konkistak hainbat arlotan izan dituen ondorioak aztertuko dira: hizkuntzaren galera eta eremu-murrizketa, gazteluen suntsiketa, gaizkileen muga, eta konkistaren ondorio instituzionalak, sozialak eta orokorrak. Biltzarra historialari, irakasle, ikasle eta interesa duen orori begira an-

tolatu dute. Era berean, jardunaldietan posterrak eta komunikazio libreak izango dira baita ere. Aurtengo biltzarra lau gunetan egingo da, eta bakoitzean gai bat aztertuko da:

Irailaren 7an, ARRASATEN (Gipuzkoa): konkistaren ondorio linguistikoak.

Irailaren 8an, LEITZAN (Nafarroa): mugak.

Irailaren 14an, AGOITZEN (Nafarroa): gazteluen suntsiketa eta berreskurapen-prozesua.

Irailaren 15ean eta 16ean, IRUÑEKO Planetariumean, azkenik, ekitaldiei amaiera emateko, konkistak izan zituen ondorio orokorrak aztertuko dituzte: gaztelarren erasoaren ondoren izan ziren aldaketa instituzionalak, sozialak eta politikoak.





## Konkistan sakontzeko baliabideak

Konkistaren nondik norakoak eza-gutu eta ulertzeko hainbat euskarrirako baliabideak daude: liburuak, filmak, DVDak, web-orriak, eta abar. Horieta-ko batzuen xehetasunak dira ondorengo hauek:

### Gartxot, konkista aitzineko konkista

*Gartxot* ahoz aho transmititutako kondaira batean oinarrituta dago. Arturo Campionek benetakokontestu batean kokatu zuen, Nafarroako Konkistaren lehen urratsak non eta nola eman ziren kontatuz: Donejakue Bidea, bardoak, hizkuntzen arteko lehia, Karlomag-noren jarraitzaile inperiozaleak eta abar dira Gartxoten kondairan agertzen diren keinuetako batzuek, eta ez kasualitatez. XII. mendeko Orreagan kokatu zuen kondaira, Zaraitzun, konkista hasi zen unean. Konkista hura ulertzeko arrastoak eskaintzen ditu, beraz, bai filmak eta baita liburuak ere.

[www.gartxotfilma.com](http://www.gartxotfilma.com)

BARRUETABEÑA, E; URMENETA, A: *Gartxot, konkista aitzineko konkista*, ELKAR, Donostia, 2011.

MARTINEZ GARATEA; Luis M<sup>a</sup>: *Nafarroako historiaren sintesia, Nabarralde*, Iruñea, 2010.

Gure herriko lurraldeen irakurketa bateratua eta orokorra eskaini nahi du, ardatz nagusia den Nafarroako Erresumatik abiatuta. Liburuan, Nafarroa esaten denean, herri baten (Euskal Herriaren) adierazpide politikoa esan nahi da. Nafar guztiok gara euskaldunak hizkuntzari eta etniari dagokienez. Ha-

laber, euskaldun guztiok gara, ikus-puntu politikotik, nafarrak. Irakasle-entzat liburu aproposa da, oinarrizko sintesiak eskaintzen ditu.

### 1512 Nafarroaren konkista, Nabarralde, 2010: DVDa

Nafarroa Europako Erresuma zahar-renetakoa zen, historia luzekoa, gorte jantzia zuen, aurreratua, eta txikia izan arren, aberatsa zen: eredu zen bere garaian. Munduan zuen ospearean erakusle da Shakespearek *Love's labour's lost* (1594) lanean idatzi zuena: "Nafarroa miragarri izanen da munduarentzat". Gaztelak Nafarroa konkistatu zuen, su eta gar, bulda faltsu eta iruzurrekin. 1512.a gorrotoaren eta legez kontrako biolentziaren data historikoa da.

### 1512 Nafarroaren konkista, Nabarralde, 2010: DVDa

Gipuzkoako "Fidelissima bardulia

nunquam superata" mitoa da. Estrabonek aipatutako barduliarren tribuaren eta egungo Gipuzkoaren artean ez da jarraitutasunik. Ipuzkoa nafar eskualdea izan zen 1025ean. Gaurko lurraldearen sorkuntza berantiarra da: zer interesek bultzatuta sortu ote zuen Gaztelak, Nafarroarekin zuen etengabeko guda hartan?

[www.euratlas.com](http://www.euratlas.com): atari honetan, Europako 21 mapa politiko daude ikusgai, 1. urtetik hasi eta 2000. urte arte, 100 urteko aldeekin. Mapa horiek, Europaren azken bi milurteko historiaren ikuspegi orokorra izatea ahalbidetzen dute.

[www.puntubi.com](http://www.puntubi.com): Europako, Nafarroako Estatuko eta euskararen historia, eta, Euskal Herriko mitoak, kondairak eta elezaharrak. Halaber, Garonatik Duerora bitarteko Nafarroako Erresuma osoko herriak biltzen ditu.

[www.nabarralde.com](http://www.nabarralde.com)

[www.1512-2012.com](http://www.1512-2012.com)



# ana casas leire darretxe

## *ELKARRIZKETA*

Unibertsitateko irakasleak

“Ez da ‘autista’, Mikel da. Umea da, ikaslea da, eta, ume den neurrian, premiak ditu; hortik datoz desgaitasun eta gabezia guztiak”





# ana casas leire darretxe

E

**“Integrazioa da errealitate ‘normal’ horretan ‘desberdinak’ diren pertsona horiek integratzea. Inklusiotik onartzen dugu partaide direla hasiera-hasieratik, partaide garela denok, egiten dugun guzti horretan denok gaude inkluituta, denok gara parte-hartzaileak.**

”

“Zer da normala izatea?”. Horixe galdetzen dute Ana Casasek eta Leire Darretxek, hurrenez hurren Deustuko eta EHUko unibertsitateetako irakasleek, eskola inklusiboari buruz ikastaroak ematen dituztenean. Eta ez dute ‘normaltasunaren’ definizio esanguratsu, funtzional, bakar eta baliagarririk jaso, ‘normala’ baita desberdina izatea. Horregatik, lehenik eta behin, aniztasunaren argazki bat egin behar dela diote, eta, argazki horretan, desgaitasunak, jatorri-ugaritasunak, genero-desberdintasunak eta beste hainbat alderdi sartuko liriteke. Horren ondoren, argazki horri begiratzeko ‘betaurrekoak’ garbitu edo aldatu egin behar ditugula diote. Horrela, etiketak kendu edo alboratu ondoren, ume bakoitzarengana gerturatzu erantzun ahal izango diote irakasleek eta ikastetxeek beren geletako aniztasunari.



**Gizartean eta eskoletan aniztasunari nola erantzuten diogun zehazten du *inklusio* kontzeptuak. Nola erantzuten dio, praktikan, inklusioak aniztasunari?**

LEIRE DARRETXE: Hasteko, kontuan izan behar dugu inklusioa prozesu bat dela, eta, beraz, ez dela dena edo ezer ere ez. Askok inklusioa utopia dela esaten duten arren, argi dago praktikan hainbat erantzun inklusibo ezagutzen ditugula. Aniztasuna modu zaballean ulertuta, ideiarik garrantzitsuenetarikoa bat eredu medikoa alde batera uztearekin lotuta dago, irakasleak ez garelako medikuntzako profesionalak, hezkuntzako profesionalak baizik; eta, bestetik, eredu pedagogiko, kurrikular eta sozial batean oinarritzearekin. Esate baterako, umeari gertatzen zaionaren diagnostikoan enfasia jarri beharrean, enfasi hori ikaslearen hezkuntza-premien detekzioan jarri behar da, eta, horiei erantzun egokia emateko, eskola-sistemaren aldaketa kokatzean, ume horien inguruan dagoen guztia aztertuta; eta eskola, curriculum, beste ikaskideak, beste profesionalak eta eskola-komunitate osoa sartzen dira in-guru horretan.

**Zuek ez zarete integrazioaz ari, inklusioaz baizik. Agian, lehenik eta behin, inklusioa eta integrazioa bereizi egin beharko genituzke.**

LEIRE DARRETXE: Bai, argitu behar da inklusioa eta integrazioa ez direla gauza bera. Inklusioa eskubideetan oinarritzen da. Azken batean, denok daukagu eskubidea hezkuntza jasotzeko eta gizartean egoteko. Kontua ez da norbaitek barnean ni toleratzea. Guztiok ditugu berezitasunak, eta, beraz, guztiok toleratzen dugu elkar, guztiok



bizi baikara elkarrekin. Guztiok ikasten dugu guztiongandik.

ANA CASAS: Integrazioa da errealitate 'normal' horretan 'desberdinak' diren pertsona horiek integratzea. Inklusiotik onartzen dugu partaide direla hasiera-hasieratik, partaide gairela denok, egiten dugun horretan guztian denok gaude *inkluituta*, denok gara parte-hartzaileak.

### **Abiapuntuko aldaketa bat izango litzateke, beraz, inklusioa.**

ANA CASAS: Hezkuntza-errealitatea aztertzeko eta ulertzeko, betaurrekoak garbitu, argitu edo aldatu egin behar ditugu, horixe da gakoa. Normalean, betaurreko garbi eta izugarri politekin jaiotzen gara, baina, bizitzan aurrera goazela, 'zikindu' egiten dira, eta motz gelditzen, askotariko errealitate sozialetan sortzen diren aurreiritziekin. Ez ditugu soilik genero-betaurrekoak aldatu behar. Kultura, ezgaitasuna..., oro har, aniztasuna modu zabal batean ulertzea da gakoa, eta elkar onartzea. Azken batean, etiketak kendu eta etiketa horien atzean umeak daudela konturatu behar dugu; umea pertsona dela, neska bat, mutil bat, bere ezaugarri, gaitasun, errealitate, premia edota alaitasunarekin... Ez da 'autista', Mikel da, eta, agian, Mikelek hezkuntza-premia bereziak edukiko ditu. Umea da, ikaslea da, eta, ume den neurrian, premiak ditu, eta horren ondoren datoz ezgaitasun eta gabezia guztiak nahiz horregatik izan ditzakeen premia bereziak. Pertsonak gara guztiok, berdin da autismoa izan, Errusiatik etorri, Bermeokoa izan... Abiapuntuan eta izatez, umeak dira, eta ume direla kontuan hartuta ulertu behar ditugu; guk, profesionalok, ikuspegi horretatik hurbildu behar dugu haiengana, dituzten hezkuntza-premiak aurkitu nahian eta haiei erantzun esanguratsu eta funtzionalak emateko gogoz.

**Hitz egin dezagun aniztasunaz. Eskola inklusiboak aniztasunari erantzun hobea ematen diola diozue; baina, lehenik eta behin, zertaz ari gara aniztasunaz ari**



### **garenean? Modu zabalean ulertu beharko genuke aniztasuna, ezta? Generoa, jatorria, ezgaitasunak...**

LEIRE DARRETXE: Bai, bai, modu zabalean ulertu behar dugu. Galdera da zer den *normala* izatea. Guk beti galdetzen dugu hori, baina, ezinezkoa gertatu zaigu erantzun esanguratsu, funtzional eta baliagarri bat aurkitzea; 'normala' delako desberdina izatea. Nahiz eta guk esperientzia handiagoa izan ezgaitasunak dituzten ikasleekin (hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin), aniztasunaren zerrenda bukaezina da. Esate baterako, honako ezaugarri hauek izan ditzakegu kontuan: kultura (hizkuntza...); generoa; interesak; itxaropenak; ikasteko erritmoak; ikasteko estiloak; ikasteko ereduak eta motibazioa; aldeztu aurretiko ezaguerak; adimen-aniztasuna; trebetasun sozialak; alderdi afektiboak; izaera... Hori guztia eta gehiago da aniztasuna. Eskola inklusiboak aniztasun horri guztiari egin behar dio lekua; erantzuna eta indarra eman behar dizkio hezkuntzaren ikuspegitik.

ANA CASAS: Askotan, soilik positiboak diren ezaugarrietan oinarritzen gara normaltasuna adierazteko, eta aniztasuna zerbait negatiboa balitz bezala hartzen dugu. Aniztasuna, ordea, naturala da, eta bizitzako testuinguru, errealitate, egoera nahiz une guztietan aurki dezakegu. Baina aniztasuna ez dugu kontuan izan behar ikasleei begi-

ra soilik; kontuan izan behar dugu irakasleei (pertsona diren heinean, profesionalak diren heinean...) eta ikastetxei begira ere (ez daude bi eskola berdin, eta ez dute zertan egon). Bakoitza bakarra eta errepika ezina da.

### **Inklusioa prozesu bat dela esan duzue, baina, prozesu horretan nondik hasi? Lehentasunak non jarri?**

LEIRE DARRETXE: Garrantzi handiko hiru esparru daude: antolaketa, curriculum eta zerbitzuak (laguntzak). Antolaketan, gauza piloa egin daiteke arlo hauetan guztietan: erabiltzen duzun metodologian, espazioan, ordutegian, baliabideetan, ekintzetan... Ikastetxearen proiektuan, hausnarketa egin behar da: ea lehentasuna duen aniztasunak ala ez, eta nola planteatzen duten; nolako ikasleak dituzten ikusi behar dute, non dagoen ikastetxea, zer-nolako familiak etortzen diren...

ANA CASAS: Curriculumak berriro pentsatu behar da: curriculumak irekia eta malgua izan behar du, dibertsifikatua, multikulturala, diziplinartekoa, esanguratsua eta funtzionala. Ez da aniztasuna 'integratu' behar, baizik eta eskola-errealitatearen barnean txertatu behar da, eskolaren errealitatea dela ulertuta. Aniztasun guztiak eskola inklusiboaren partaide izateko, ikastetxeko eta ikasgelako kultura eta antolaketa berregitea du helburu eskola in-



# ana casas leire darretxe

E

**“ Irakasle batek denbora ateratzen du, eta eskola bat antolatzen da... Hortaz, beste irakasle batek edo beste ikastetxe batek zergatik ez dauka horretarako espaziorik eta denborarik? Lehentasunengatik da hori, eta antolaketa kontua da hori. ”**

klusiboak: eskolak denon inplikazioa behar du (irakasleak, ikasleak, eskolako beste profesionalak, aniztasunari erantzuteko eskolatik kanpo dauden baliabideak, familiak, komunitatea).

## **Irakaslea nondik abia daiteke gela inklusiboa egiteko?**

ANA CASAS: Irakaslearen lana oso polita da. Gure eskuetatik pasatzen dira garatzen ari diren pertsonatxoak. Izugarri lan polita da, eta hori ulertu eta sinetsi egin behar dugu, beste ezeren gainetik; modu horretan ikusirik, egunerokotasunean gauza asko egin ditzakegula konturatuko gara. Garatzen ari diren pertsonak dira, eta gu eredu gara haientzat, eta, gainera, baliabideak ditugu, haien hezkuntza-premiei erantzuteko.

Lehenik eta behin, irakasleok be-taurrekoak aldatu behar ditugu. Umeei aukerak eman behar dizkiegu. Lehenengo, ikusi eta ulertu, eta, gero, ondo hurbildu. Hurbilketa hori ondo egiten bada, beste guztia horren ondotik dator gero. Horren barnean sartzen bazara eta ulertzen baduzu, ikaslearentzat egokiagoak diren baliabideak bilatu ahal izango dituzu. Irakasle zabiltzanean ikusten ez duen ume batekin ari bazara, egunerokoan harengana hurbiltzen bazara, materialak harentzat egokitu ahal izango dituzu. Gainera, ezgaitasunak dituzten ikasleentzat onuragarriak eta baliagarriak diren baliabideak, estrategiak, ekintzak, eta abar erabilgarriak izan daitezke besteentzat ere, hezkuntza-premia ez esanguratsuak dituztenentzat ere.

LEIRE DARRETXE: Irakasleak aldatu dezake testuingurua eta begiratzeko eta esku hartzeko modua, hori norberaren esku dago. Oso garrantzi handia duen jarrera da hori, eta ezinbestekoa da partekatzea. Ez da soilik irakaslearen gakoa; ikasle hori gela horretan dago orain, baina ikastetxe baten barruan dago. Ikastetxeko umea da, eta ikastetxea jangela, jolas-lekua, autobusa, gela, eta abar ere bada. Orain, zure ikaslea da, eta beste irakasle batena izan daiteke datorren urtean, mailaz pasatzen ba-



da. Dena partekatu behar da: baliabideak, informazioa...

## **Irakaslearen esku gauza asko daudela diozue. Baina eskolako errealitateak eta antolaketak lagundu edo oztopa dezake praktika inklusiboak egitea, ezta?**

LEIRE DARRETXE: Baina nork egin du, bada, antolaketa? Irakasleok, ezta? Antolaketa aldatzea gure esku dago. Premiazkoa da parte-hartzea oztopatzaren duten egoerak identifikatzea. Zailtasunak pertsonaren eta testuinguruaren artean daudela ulertzean, guk, irakasle moduan, testuinguru hori alda dezakegu, hau da: irakaskuntzako eta ikaskuntzako metodoak, jarduerak,



ekintzak, baliabideak, ikasleak antolatzeko ereduak... Askotan egin dezake irakasleak berak. Noski, zailagoa da; izan ere, hainbat antolaera topatzen dituzu, eta den-dena ez dago zure esku. Baina posible da, egoerak aldatzeak duen garrantzia sinisten dugu eta. Egoera mikro horretatik eragin dezakegu, eta benetan gura duzun hori egunerokotasunean bizi dezakezu. Egia da, noski, aipatu dudanez, gauzak ez daudela soilik irakaslearen esku. Argi dago: politika, kultura eta praktika kontua da hau.

ANA CASAS: Guk izugarriko errealitateak ikusi ditugu, oso errealitate gogorak askotan, oso inklusiboak direnak nahiz kontrakoak ere bai. Irakasle batek denbora ateratzen du, eta eskola bat antolatzen da... Hortaz, beste irakasle batek edo beste ikastetxe batek zergatik ez dauka horretarako espaziorik eta denborarik? Lehenetsunengatik da hori, eta antolaketa kontua da hori.

**Politikaz, kulturaz eta praktikaz jardun duzue. Eskola inklusiborako bidean, funtsezkoak dira hiru adar horiek?**

LEIRE DARRETXE: Hiruki horrek erantzun behar du. Politikaren ikuspegitik, badakigu egoera zein den: murrizketen ondorioz, egoera gogorra bizi dugu orain, eta hori da daukagun errealitatea. Politikoki gaizki gaude, eta gero eta okerrago egongo gara hezkuntza elitistago bihurtuz; baina, nazioartean, argi dago ildoak: hainbat erakundek inklusioaren alde lan egiten dute (Unesco, Unicef, NBE...). Kulturaren aldetik, zer-nolako kultura sartzan dugu ikastetxe bakoitzean, elkarrekin lan egiteko kultura? Eta zer-nolako praktikak egiten ditugu? Hiruki osoak dauka eragina inklusioan.

Egia da eskolako politikak, kulturak eta praktikak eragina izango dutela norbanakoaren zereginean. Hala ere, Gerardo Echeitak aipatzen duen moduan, "bihurtu zure gela eta zure ikastetxea batzuek nahi dugun beste mundu posible horren mikrokosmos", edo, Gandhiren hitzetan, "izan zu zeu mundurako nahi duzun aldaketa".



ANA CASAS: Errealitateak, pertsonak sortzen ditugu... Zenbat eta pertsona inklusibo gehiago, gero eta errealitate inklusibo gehiago. Ezin da pentsatu bakarka ari garelako ezinezkoa dela. Errealitate inklusibo txikiak elkartuz, eredu izan gaitzeko beste batzuentzat, eta benetako errealitate inklusibo handi bat sor dezakegu.

**Hezkuntza-politikaz ari zarete. Nola eragingo diote murrizketek aniztasunaren kudeaketari?**

LEIRE DARRETXE: Murrizketekin, gaitzagoa izango da egoera. Laguntza-baliabideak, arreta pertsonalizatua..., horrelakoak asko okertuko dira. Atzerakada ikaragarria izango da, irakasleek gero eta baliabide gutxiago edukiko baitituzte. Gogoak izango dute, baina baliabide gutxiago izango dituzte. Egia da baliabide gehiago izan beharko gennituzkeela erantzun egokia emateko.

ANA CASAS: Lehenengo neurriak izan dira murrizketa hauek. Eta ez da modu egokia izango, umeen beharrei behar bezala erantzuteko. Zenbait umeak, arreta bereziagoa eta indibidualizatuagoa behar dutenek, ez dute izango baliabiderik, edo izango dituzten baliabideak murriztuagoak izango dira, eta egoera gordinagoa izango da

haientzat. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ume horiek berezitasunak dituzte; eta gu ez gara medikuak, eta gainera ume horiek ez dira sendatuko, ez gurekin, irakasleekin, eta ezta medikuekin ere. Premiak dituzte eta izango dituzte, eta premia horiek, askotan, bereziak izango dira. Murrizketa horiekin, noski, zenbait egoera eraman ezin izango dira, eta horixe da daukagun errealitatea.

**Eskola inklusibora bidean, lehenetsun gisa curriculumaren aldaketa aipatu duzue. Aniztasunari erantzuteko curriculumari berriro pentsatu beharko litzatekeela uste duzue?**

LEIRE DARRETXE: Curriculum aldetik ere, gelan kultura askotako umeak badauzkagu, horren isla izan behar du curriculumak. Kulturartekotasuna beharrezkoa da curriculumean, errealak izango bada. Ireki egin behar da curriculumak, funtzionalak izan behar du, eta trebetasunetan oinarritu behar da; gainera, diziplinartekoa eta baliagarria izan behar du ikasleentzat. Ikasten duten horrek zertarako balio duen ulertu behar dute, etorkizunean zertan erabiliko duten... Curriculumak horrela egiten badugu, premia guztiak sartuko ditugu.

# ana casas leire darretxe

E

**“ Bi gako hauek hartu behar dira kontuan: ikaslea ez da arazoa, arazoa sistemaren antolaketa eta erantzuna da. Eta denok elkarrekin egin behar dugu lana, ez espezialistak bere kabuz eta irakasleak bere aldetik; denok daukagu erantzukizuna.**

”

ANA CASAS: Curriculum ireki eta malgua egin behar dugu. Trebe bihurtu behar ditugu haurrak, eta gaitasunez bete behar ditugu, baina ez soilik curriculum-gaitasunez. Bizitzako gaitasunetan ere trebe behar ditugu, etorkizunean pertsona autonomo izan daitezzen; baina ume guztiei buruz ari gara. Ume guztiek ez dituzte behar eta gaitasun berdinak, eta, horregatik, askotariko aukerak eman behar zaizkie behar berezi horiei erantzuteko. Askotan, legeen aldetik, badaude hainbat neurri aniztasunari erantzuteko; aukera batzuk egon badaude. Baina, gero, neurri hori nola antolatzen duzun ikusi behar da, nola egiten duen hori irakasle bakoitzak edo eskola bakoitzak.

**Legeak aipatu dituzue... Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako, Jaurilaritzak badu aniztasunari erantzuteko plan estrategiko bat, eskola inklusiboaren esparruan. Hori garatzen ari den bitartean, zein da, zehazki, egoera?**

ANA CASAS: Hezkuntza-premia bereziei dagozkien dekretuak, aginduak eta legea 1998koak dira gure autonomia-erkidegoan. Garai horretan, ideia nagusia integrazioa zen, eta LOGSE zen oinarritzko legea. Integrazioaren ideia horretarako, ondo zetozen dekretu eta agindu horiek, baina gauzak ika-

ragarri aldatu dira; orain, LOE dugu, eta inklusioa da oinarria.

LEIRE DARRETXE: Oraingoan, Eskola Inklusiboaren esparruan, Eusko Jaurilaritzak 2012-2016rako Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa argitaratu berri du apirilean. Gaur egun, irakasle-ikasketetako eta hezkuntzako gradu eta titulazioetan ikasleek eskola inklusiboaren oinarriari buruzko irakasgaiak ikasten dituztela nabarmendu behar da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakasleentzako Prestakuntza Unibertsitate Masterrean, hiru urte darmatzagu Eskola inklusiboari eta aniztasunari buruzko irakasgaiak ematen. Etorkizuneko irakaskuntza-profesionalentzako oinarritzko prestakuntza iruditzen zaigu. Nazioarteko bidea inklusioa da, eta gauza asko daude egiteko bide horretan.

**Ba al dakizu zer egoera bizi duten Nafarroan eta Iparraldean?**

LEIRE DARRETXE: Nahiz eta paradoxikoa izan, ez ditugu asko ezagutzen errealitate horiek. Andaluziako eta Kataluniako errealitatek hobeto ezagutzen ditugu. Ikerkuntzan sartzen zarenan, ingelesera jo behar duzu, eta lehenago topatzen duzu Kanadako berri







Nafarroako berri baino.

ANA CASAS: Gai hauei buruz euskaraz oso gutxi idazten da. Guk euskaraz egiten dugunean guk, horretan sinesten dugulako egiten dugu. Horretan sinesten dugu, eta horregatik egiten dugu.

### **Kasu askotan, behar bereziak dituzten haurrak Pedagogia Terapeutikoko irakasleen esku gelditzen dira.**

LEIRE DARRETXE: Gelan, aniztasunari erantzuna ematea tutorearen ardura da; hori ezin da zalantzan jarri. Laguntza daukate zerbitzuen bidez edota Pedagogia Terapeutikoko (PT) irakasleen bidez, besteak beste. Baina ardura ez da haiena, ardura tutorearena da, eta guztien artean kolaboratuz egingo dute aurrera. Beharrezkoa da inplikazioa, eta baita irakaslearen eta PTko irakaslearen arteko elkarlana ere. Baina zu zara tutorea.

ANA CASAS: Ez ezagutze horrek beldurra sortzen du, eta, askotan, tutoreak, hobe beharrez, adituarengana, PTko irakaslearengana, bidaltzen du umea, berak ez dakielako zer egin edo uste duelako ez dela gai horretarako. Irakasle askok ez daki gelan zer egin

ume horiekin. Baina, Leirek esan bezala, zu zara ume horien irakaslea, eta haiekin batera garatu behar duzu, bai pertsona gisa eta profesional zaren neurrian. Askotan, pentsatzen da umea gelatik kanpo eramanda agian zerbait hobea egin dezaketela... Eta konponduko du bere egoera. Irakaslearentzat, gelatik kanpoko baliabide profesionalak lagungarriak izan behar dute (PTko irakasleak, ALEak, Berritzeguneko aholkulari profesional taldeak, elkarte askotatik ikastetxeetara hurbil daitezkeen profesionalak...), besteak beste, irakasleei aniztasunari erantzuten laguntzea eta aholku ematea dutelako helburu. Guk ez ditugu pertsona horiek sendatzen, eta ez dira sendatuko. Bi gako hauek hartu behar dira kontuan: ikaslea ez da arazoa, arazoa sistemaren antolaketa eta erantzuna da. Eta denok elkarrekin egin behar dugu lana, ez espezialistak bere kabuz eta irakasleak bere aldetik; denok daukagu erantzukizuna.

### **Arazotzat beharrean a aukeratzat hartu beharko genuke aniztasuna.**

LEIRE DARRETXE: Aniztasuna ez da arazoa, aberastasuna da.

ANA CASAS: Pertsonak, umeak, aniztasunean jaiotzen direnez, aniztasun horretan garatu behar dute txikitatik, aniztasuna modu positiboan ulertuta, aberastasun-iturri dela ikusita... Horrela, aniztasuna errespetatzen eta balioesten duten helduak izango ditugu etorkizunean, pertsonengan alderdi positiboak aurkitzeko gai diren pertsonak. Izan ere, denok ditugu premia bizitzan uneren batean, egoera batean, errealitate desberdinetan, premia horiek esanguratsuak izan edo ez.

### **Tutorea, Pedagogia Terapeutikoko irakaslea, eskola... aipatu ditugu. Zer diozue familiez? Nola hartzen dute gurasoek euren seme-alaben geletako aniztasuna?**

LEIRE DARRETXE: Askotan, gurasoek pentsatzen dute euren seme-alaben gelan autismoa duen ikaskide bat badago, adibidez, euren seme alabek

ez dutela behar luketen erritmoan ikasten. Baina hori mito bat da, eta hori esateko oinarri sendoak ditugu ikerketetan. Lehenik eta behin, guraso horiei guztiei azaldu behar zaie zer den eza gutzen ez duten hori, zer den autismoa duen pertsona izatea. Frogatuta dago autismoa duten pertsonekin edo bestelako behar bereziak dituzten ikasleekin gela partekatzen duten umeek ez dutela gutxiago ikasten, kontrakoa baizik. Gaur egun, informazioaren eta komunikazioaren gizartean, ikaskuntza dialogikoan oinarritu behar dugula esan behar da. Hau da, komunitate osoaren berdintasunezko elkarriketa nabarmentzen da (irakasleak, ikasleak, familiak, elkarteak, boluntarioak...), eta eskola batzuek ildo horretan lan egiten dutela azpimarratu behar da.

ANA CASAS: Aniztasuna aberastasuna da; zure ikaslea eta zure umea gelan desberdintasun horretan sartuta dagoen beste ume batekin badabil, aberastasuna da zure haurrentzat ere, du darik gabe. Hura hor egoteak ez du adierazten zure semeak edo alabak zerbait galduko duela. Inklusioa onuragarria da denontzat, bai hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, bai halakorik ez dutenentzat ere.

### **Inklusioa eskolatik harago dagoen bizitzeko era bat dela diozue.**

ANA CASAS: Alderdi horien inguruko ikastaroak ematen ditugunean, guk, pertsona eta profesional gisa, bizitza ikusteko eta bizitzeko beste modu bat bilatzen dugu. Zure bizitzan, zu desberdin egiten zaitu inklusioari buruzko ikuspegia aldatzeak. Inklusioa ez da soilik aniztasun horretatik datorrenentzat, guztiontzat da. Gure bizitza profesionala, batez ere, ezgaitasunak dituzten pertsonen eskaini diegu, eta ezin duzu imajinatu zenbat eman dигuten haiek guri, batez ere haiek ematen baitigute guri.

LEIRE DARRETXE: Eskolatik harago, bizitzeko modu bat da inklusioan sinestea; guretzat ere, bizitza-filosofia bat da, eta mundua aldatzeko hartu dugun bidea.

# Arantzazu LOIDI eta Malu ELOSEGI

## Nire ikasleekiko harremana

**“Ezkor egoteko arrazoiek harrapatzen gaituztenean, ezinbestekoa da hezitzaile-lanari buruz ikuspegi positiboa edukitzea”**



**Arantzazu LOIDI**

PRH FORMAZIO ESKOLAKO HELDUEN HEZITZAILEA ETA  
GARAPEN PERTSONALEAN ADITUA

**“Irakasle-ikasleen arteko harremana, kolektiboen arteko tentsio eta gatazkak. Nola kokatu gai horren aurrean, eta hobetu?”. Arantzazu Loidik, PRH Formazio Eskolako helduen hezitzaile eta garapen pertsonalean aditu denak, topaketetan emango duen ikastaroak galdera horri erantzutea du helburu, hain zuzen. Hezitzaileek ikasleekin bakarka zein taldean dauzkaten harremanak aztertu, eta horiek hobetzeko bideak bilatuko dituzte ikastaro horretan.**

**Ikasle-irakasleen arteko harremanak ikuspegi baikor batetik jorratzea proposatzen duzu. Uste duzu ez direla horrela egiten?**

Ez dugu esan nahi horrela egiten ez denik. Baina, sarritan, lankideekin eguneroko arazoez dihardugunean eta harreman-arazoak ere baditugunean,

edo azkenaldian heziketa-arloan albiste diren egoerak, egiten ari diren murriketak eta abar kontuan hartuta, zaila izaten da hortik aldentzea, eta baiko-rak izateko modua ematen diguten perspektibetatik begiratzea gure errealitateari. Eragin handia izaten du horrek motibazioan. Gure esperientziaren arabera, bakoitza bere onenean jartzen da honelako ikastaroetan, eta ikasleari eta nork bere buruari beste modu batera begiratzea lortzen da; heziketa-laneko motibazioak indarberritu egiten dira horrela. Eta elkar ezagutu ez arren, lanbide berean diharduen jendearekin batera lan hau egiteak indartu eta asko aberasten ditu irakasleak. Horixe izaten da beti azpimarratzen duten gauzetako bat.

**Zer garrantzi du ikuspegi positiboa edukitzeak?**

Ezinbestekoa da, are gehiago ezkor egoteko arrazoiek harrapatzen gaituztenean. Hezitzaile-lanari, ikasle bakoitzari eta haren gaitasunei, hezitzaile gisa ditugun indargune eta motibazioei begira jarrita, funtsezkoa da begirada hori landu eta indartzea, gure lanaren zentzuari eusteko, lanean gustura jarduteko, geure burua garatzeko, eta ahalik eta emaitzarik onenak erdiesteko.

**Heziketa-harremana hobetzen duten jarreraz mintzatuko zarete ikastaroan. Gainetik bada ere, esaguzu zein liratekeen jarrera horiek.**

Beno, ikastaroan erabiliko den metodologia PRH Formazio Eskolan era-

bili ohi dena izango da, eta irakasle bakoitza bere esperientziari begira jarriko dugu, gogoeta egin dezan eta laguntzen duten eta ez duten jarrera, bide eta moduez ondorioak atera ditzan. Parte-hartzaile bakoitzak bere hitzekin izendatuko ditu, baina alderdi ugari jorratuko ditugu: ikasle bakoitzarenganako begirada eta ezagutza, haren beharrak ezagutu eta horiei erantzuteko gaitasuna eta jarrera, aspirazio eta beharren fenomenoak, balorazioa, zailtasunak eta oztopoak eta horien aurrean izaten ditugun jarrerak...

**Ikasle bakoitzarekiko harremana kudeatzeko gaitasuna eduki behar du irakasleak. Baina gaitasun hori landu liteke, ezta? Tresnak eskura baditu, errazago izango zaio harremana kudeatzea?**

Lehenik eta behin, bere harreman-gaitasunez eta zailtasunez ohartu behar du, eta baita aurrean duen ikaslearen gaitasun eta mugez ere. Ezagutzen duguna landu liteke, etengabe haz gaitzke, horretarako jarrera izanez gero. Lehen urratsa non gauden jakitea da, eta horretan lagunduko die ikastaroak bertan parte hartzen duten irakasleei. Nor bere errealitateaz ohar dadin eta bere senera hurbil dadin saiaturiko gara. Esperientziak argi erakutsi digu daukagun onena ematen dugula bide horretatik; hobetzeko gogoia piztu, eta bide bat proposatuko diegu...

# Jaione TXAPARTEGI

## Ahotsaren erabilera egokia

### “Ahotsa zainduko bagenu, ahots-arazoak izateko arriskua gutxitu egingo litzateke”



**Jaione TXAPARTEGI**

LOGOPEDA. ARANSKI

**Hezitzaile-lanbidean, askotan zaila izaten da ahotsa osasuntsu edukitzea. Irakaskuntza-arloan, bereziki, disfonia kasuen kopurua gora doa, urtetik urtera. Ikastaroak aukera ederra eskainiko digu disfonia zer den, nola hautematen den, agertu ondoren zer bideri jarraitu behar diogun edota prebentzio-neurriak zein diren ikasteko.**

**Hainbat lanbide ez dira oso egokiak ahotsa osasuntsu edukitzeko; horien artean, irakaskuntza. Edo, agian, egokiagoa litzateke esatea hainbat lanbidetan bereziki garrantzitsua dela ahotsa zaintzea?**

Noski. Ahotsa zainduko bagenu, ahots-arazoak izateko arriskua gutxitu egingo litzateke; horregatik du garrantzi handia ahotsa osasuntsu edukitzeko prebentzio-mekanismoak kontuan hartzea.

Prebentzioaren arlo garrantzitsua bat prestakuntza da: ahots osasuntsuaren ezaugarriak eta hori lortzeko erabi-

li behar diren mekanismoak ikasiko direlako.

Horretaz guztiaz gain, gure lanbidea irakaskuntza denean, beste zenbait gai hartu behar ditugu kontuan: sozialki eta profesionalki hitz egin beharra, ahots-efortzu kronikoa, taldeetako haur kopuru handiegia, talde zaratsua izatea, segidan ordu gehiegi hitz egitea, ikasgelaren akustika desagokia, ikasgelatik kanpo oihu egin beharra... Horrek hitz egiteko teknika ikastea, ondo neurtutako ingurunea eta lehen aipatutako prebentzioa eta prestakuntza dakartza berarekin.

Ahots osasuntsua izateko desegokiak diren ohiturak saihestu, eta, horien orde, ohitura egokiak ikasi behar dira.

**Zer faktorek eragiten dute batez ere ahots-arazoaren agerpenean?**

Alde batetik, faktore biofisikoak aipatu behar dira. Horien artean, gaixotasunak eta ohiturak hartu behar ditugu kontuan: alergiak, arnasa beti ahotik hartzea, postura desagokiak erabiltzea, tabakoa, sudur-higienea, eta abar.

Bestetik, hor daude alderdi psikologikoak ere: erlaxazioa, neke fisikoa eta mentala, estresa, eta abar. Unean uneko egoera psikologikoak zerikusi handia du ahotsa erabiltzeko moduan: pozik, triste edo haserre gaudenean, ahots desberdinak ateratzen zaizkigu, ezaugarri desberdinak dituztenak, eta horiek guztiak ezagutu eta kontrolatu egin behar dira.

Eta, azkenik, alderdi soziala dauka: klima, lanbidea, aisia, aire girotua, familian komunikatzeko dugun ohitura, eta abar.

**Zenbateraino ezagutzen dugu gure ahotsa? Zertan lagunduko digu ezagutza**

**horrek?**

Normalean, gure ahotsa oharkabean erabiltzen dugu. Arazorik izan ez badugu, ez diogu garrantzirik ematen: ez dakigu airea dugun ala ez, indarra non egiten dugun, eta abar.

Ahotsaren ezaugarriak eta bertan parte hartzen duten mekanismoak ikasten direnean, ahotsaren erabilera kontzientea egingo dugu, eta era egokian erabiltzen dugun ala ez ohartzeko balioko digu horrek. Gainera, aldatu beharrekoak hautematen erakutsiko digu ahotsaren erabilera kontziente horrek.

**Norberak bere ahotsa ezagutzeko aukera izateaz gain, zer gehiago ikasiko du ikastaroan?**

Ahots-teknika egokia erabiltzeko behar ditugun ezagutzak izango dira bereziki; eta, noski, horrekin batera, teknika horren osagai diren arlo guztiei buruz hitz egingo dugu: arnasketa, erlaxazioa, erresonantzia, erritmoa, ahoskera, prosodia, inpostazioa, eta abar.

Hori guztia era teorikoan ikusiko dugu, baina baita praktikokan ere.

Ikastaroan, norberak aukera izango du ahotsa bere gorputzean sentitzeko, eta, horrela, orain arte era desegoki erabili dituen ahots-ezaugarriak egokiro erabiltzen ikasiko du.

Gainera, norberaren ahotsa irakaskuntzak eskaintzen dizkigun egoeretara egokitzen ikasteko ahalegina egingo dugu.

Laburbilduz, gure hizketako ahotsaren erabileraren oinarri bat ikasiko dugu; ahotsa osasuntsu dagoen ala ez bereizten ere saiatuko gara, eta, azkenik, ditugun prebentzio-mekanismoak ezagutuko ditugu.



### “Beste bizitza bat hasi denaren sentrazio eta bizipenek mundua beste begi batzuekin ikusteko aukera eskainiko digute”

**Barne lanketa bidez norbanakoak berezko baliabideak landu, garatu eta plazaratzeko beharrezko indarra eta ziurtasuna eskuratuko ditu Urko Arozenaren iritziz. Gure adimena nola eta norantz gidatu irakatsi du, norbere baliabideen ezagutza hobetuz.**

**Produktibitatea gero eta gehiago baloratzen den jendarte honetan, zuk barne lanketa egitea proposatzen duzu, norbanakoak berezko baliabideak landu, garatu eta plazaratzeko beharraz ari zara. Hori lortzeak, ze nolako eragina izango du norbanakoaren bizitzan? Zertan antzemango da? Ze garrantzia du?**

Hasteko, inguru mugituegi honen zurrunbilatik ateratzea lortu beharko genuke benetan zer garen, zertan gabiltzan, zernahi dugun, etabarjakiteko. Barne lanketa eskatzen du hasierako puntu honek. Barne lanketa egin ondoren, eta gure benetako kokapenaz jabetu ondoren, gure bizitza erabat aldatzen da: gertaera berdinak gure barruan erantzun ezberdina edukiko dute, eragin ezberdina. Beste bizitza bat hasi denaren sentrazio eta bizipenek mundua beste begi batzuekin ikusteko aukera eskainiko digute, aukera lasaia, sosegatua.

Horrek barruko indar ikaragarria eskainiko digu benetan nahi dugun horretan gure ahalegin hori eskaintzeko, benetako kalitatea duen ahalegina.

**Batetik, norbere buruari dagozkion puntuak ukituko dituzue, konfiantza eza, beldurrak, muga estuak, pertzepzio ez zuzenak... eta bestetik maite ditugun pertsonak beste era batera laguntzeko tresnez jardungo zara. Bi horiek al dira**



**Urko AROZENA**  
MUSIKENKO PERKUSIO IRAKASLEA

**bizitza kalitatea hobetzeko faktore garrantzitsuenak?**

Bizitza kalitatea hobetzeko faktoreak erabat pertsonalak dira. Argi edukiz gero zer den benetan egitea gustatuko litzazigukeena, benetan amestu dugun bizitza hori, benetan maite ditugun pertsonak, eta gure indar guztiak aipaturiko gustuko eta benetan desiratzen dugun bizitza horren alde jarritz gero, beste bizitza bat edukiko genuke.

Ordena alderantzizkoa da nire ustez: lehenik, gure beldurrak eta mugak gainditu, eta ondoren, norbere edalontzia ongi betea daukagunean, nahi eta ez hortik ateratzen dena eta ondokoei eskeiniko dieguna, gure onena izango da, horretaz beterik gaudelako, hori gainezka daukagulako.

Horrek dudarik gabe, bizitza kalitatea asko hobetuko liguke, guri eta ondokoei.

**Kontrol mentalari buruz unibertitateko ikerlanen mundu mailako ikerkuntza garrantzitsuenen berri emango da ikastaroan. Aurreratu ditzakezu zeintzuk diren eta ze puntu garrantzitsu**

**defendatzen duten?**

Aurreratu dezakedana honako hau da: goi mailako kirolari gehientsuenek darabiltela bueltan kirol psikologoa. Kirolariak, fisikoki prestatzeaz gain, mentalki ere prestatzen dira egin beharriarri egiteko, eta emaitza bikainak nabarmentzen dituzten hamaika ikerlan dauzkagu eskura. Zein da honako abantailak lortzeko tresnak gainontzeko gizakiek ez erabiltzeko arrazoa? Gizaki osoak bagara, zergatik ez landu gure errekurtso guztiak? Zergatik arriskatu gure ahalmenen ohiko %10 ezagun hori bakarrik erabilia?

**Bakoitzaren beldurrak, baliabideak eta helburuak desberdinak izan daitezkeela kontuan izanik, ikastaroa nola egituratuko duzu?**

Ikastaroaren puntu garrantzitsuenetakoa deritzot azken honi. Galdera zuzena da: nola eskaini orokorki, helburu erabat pertsonalen lanketa suposatuko duen hori?

Erantzuna honakoa duzu: ikastaroan eskainiko dena, gure barru lanketarako teknika bilduma bat da. Ez da dagoen bakarra, baina bai nik ezagutu ditudanetatik eraginkorrena. Teknika hauek apal gisa ulertuko bagenitu, gure esku legoke apal hauetan zer eta noiz landu. Ustez ulertzen lagunduko duen beste adibide bat jartzearen, ikastaroan txirriinduan ibiltzen ikasi ondoren, norbere esku dago noiz, nola eta nora joan. Norbanakoak erabakitzen du ikasitako horrekin zer egin.

Hortik aurrera, egokiena, ikastarora etorri eta bertan ikustea!

Teknika bilduma honek nire bizitza aldatu duen gisan, lantzeko prest dagoenaren bizitza aldatuko duenaren uste osoa daukat.

# Ibon DE LA CRUZ

## Eguneroko emozioak

### “Emozio atseginak sortzeko lehenengo pausoa geure barruko ahalmenak aurkitzea eta garatzea da”

Ibon De la Cruz psikologoak norberaren baitan, erraietan, dauden emozioak eta tresnak ikusaraztea du helburu, ikastaro honetan. Sufritzen ari den jendeak egoera aldatzeko baliabideak bere baitan dituela dio psikologoak, ezagutzea eta erabiltzen ikastea dela kontua.

**Krisia, langabezia... Gero eta pertsona bakartiagoak omen gara. Ez dira albiste onak egunero entzuten ditugun horiek. Baina, horien aurrean, zer egin dezakegu, eguneroko emozioak atseginak izan daitezten?**

Ez, ez dira berri onak, baina benetako emaitzak lortzeko, errealitatearekin egin behar dugu lan. Egoerak askotariakoak dira, eta hainbat mailatan lan egiteko ohitura sortu behar dugu. Zein diren aurkitzen ditugun beharrak, desberdina izango da gure erantzuna, horri egokituko zaio. Eta ez dugu soilik geure bizitza hobetuko, besteen bizitzan eragin positiboa izaten ere ikasiko dugu. Nola? Bada, tresna praktikoa erabiliz, metodologia ikasiz eta antolatuz. Emozio atseginak sortzeko lehenengo pausoa geure barruko ahalmenak aurkitzea eta garatzea da.

**Gure barruan sentitzeko moduak aldatzeko tresna piloa dugula diozu, motibazioa, lidergoa, zaurien sendaketa... eta, batez ere, umorea! Baina ezagutzen al ditugu onak ditugun tresna horiek guztiak?**

Ez, normalean ez ditugu ezagutzen. Eta krudelkeria handiena hau da, nolabait: jende askok sufrimendu larria du, eta egoera hobetzeko tresnak bere barruan daude. Nolabait esateko, eska-



**Ibon DE LA CRUZ**  
PSIKOLOGOA

leak gara, baina altxor baten gainean gaude. Nire ustez, tresnak eskuratu litezke, arazorik gabe, baina hori ez da garrantzitsua. Garrantzirik handiena geure ikuspegia aldatzea da. Askotan, gure ikuspuntua aldatzen dugunean, guztiz aldatzen dira normalean bizi ohi ditugun egoera horiek.

**lazko ikastaroan, hipnosia eta autohipnosia erabili zenituzten. Aurten ere teknika horiek erabiliko dituzue emozio positiboak askatzen ikasteko? Edo beste zer teknika erabiliko duzue?**

Egia esateko, gizaki guztiok erabiltzen ditugu hipnosia eta autohipnosia egunero; eta, normalean, gaizki, gure kalterako erabiltzen baititugu. Adibidez, gure bizitzan behin eta berriz errepikatzen den arazo bat badaukagu, hori nolabaiteko “programazioa” da, eta ez da oso zaila hori aldatzea, prozesua ondo ulertu eta gero. Hipnosia oso tresna indartsua da, eta, gustura bizitzeko, ongi erabili behar dugu. Baina ez da tresna magiko bat, ez du zerikusirik te-

lebistan ikusten dugunarekin.

Beste tresna batzuk ere erabiliko ditugu (umorea, gorputzaren lana, arnasaketak, irudipen gidatua...), baina beti baldintza batekin erabiliko ditugu: alde batetik, metodologikoki egingo dugu lan guztia. Bestetik, praktikotasuna izango dugu kontuan: nire ustez, emaitza praktikoa sortu behar ditugu; bestela, teoria hitzandana bat da, besterik ez.

**Badirudi garai batean ahaztu egin genituela emozioak, eta ematen du orain berriro ari garela gizabanakoak geure emozioekin harremanetan jartzeko saiakera egiten. Hala iruditzen zaizu zuri ere?**

Bai, eta, nire ustez, mugimendu zabal eta ederra da. Baina arlo bat falta zaio, oso garrantzitsua dena, nire ustez: emozio “kementsuak” ere landu behar dira. Emozio horiek senarekin lotuta daude, gure erraietan daude. Horrek bizitzari aurre egiteko indarra ematen digu, gure ahalmenak handitzen ditu, eta gure arazoak gutxitzen.

Adibidez, depresioetan funtsezkoa da gure benetako emozioez jabetzea. Gaur egun, depresioa gure gizarteko izurri bat da, eta areagotzen ari da. Nik ikusi ditudan hainbat kasutan, benetako emozioak ikusten ditugunean, bada- go emozio horien arabera hainbat pauso antolatzeko eta egoera hori hobetzeko aukera. Askotan, arazo ugari- ren aurrean, normalean egiten duguna baino askoz gehiago egin dezakegu. Eta ez badugu gehiago egiten, ez da borondate faltagatik, baizik eta askotan ez daki- gulako zer eta nola egin dezakegun. Horretarako izango da ikastaro hau.

### Aldaketa zurkaizten



**Mirari BEREZIARTUA**

PEDAGOGIAN ETA COACHING-EAN LIZENTZIADUNA

**Pertsonen eta Erakundeen Lidergo Berrirako entrenamenduetan espezializatua da Mirari Bereziartua. Zentzu bila dabilenari bere bertsiorik onena lantzen lagundu nahi dio, ikastaro honen bidez.**

#### **Zer zentzu dauka coaching-ak gaur egungo gizartean?**

XXI. mendeko gizartean, bizitza ulertzeko eta egunerokotasunean jarduteko era aldatzen ari dira. Bizikidetzan ezaugarri berriak azaleratzen ari dira. Etengabeko aldaketa horrek sortzen duen kaosaren aurrean, aukerak erantzukizunez hartzea dagokigu, bai bakarka bai taldean. Gainera, aldaketa etengabea bada ere, aldagai berriekin dator orain, ziztu bizian. Bestalde, ezaugarri berri horien artean bada bereziki aipatu beharreko bat: bizitzari begiratzeko era analitikoak erabiltzetik sintetikoa erabiltzera pasatu gara, letre-

tan oinarritutako ikuskera partzialetik irudiak giltzarri dituen osotasuneko ikuskera erabiltzera, hain zuzen. Sakonetik aldatzera bultzatzen gaitu berrikuntza horrek. Eta, era berean, izugarriko ezinegonak sortzen ditu zenbaitengan.

#### **Zertarako balio du?**

Aldaketaz ari garenean, ezagutza ulertzetik haratago joan beharra dago, aldaketa semantikoa soilik ez gelditzeko. Hain zuzen ere, desberdin egitera jo behar dugu. Inertzia zaharretatik irtetea eta zentzua biziberritzea dagokigu. Gainera, Euska Herriak etorkizuneko erronka berriei erantzun diezaien, hor ditugu, besteak beste, euskal curriculumean hartutako konpromisoak. Gizarte osoa hartzen du erronka horrek, bizitza osoan eta bere osotasunean: euskal curriculum eta hor ageri diren bost kompetentziak.

#### **Beraz, nola lagundu trebatzen pertsonari eta erakundeei, aldaketaren erronkari egoki aurre egiteko?**

Nola lagundu pertsonari bere bizitzan liderra izaten? Pertsonari lan egiten duen edonori nola lagundu komunikazioa eta harremanak oinarri eta estilo desberdin batean gauzatzen? Nola aldatu erakundeetako buruak, kudeatzaile izateari utzi eta lider bihurtu daitezkeen?

Erronka horiei modu eraginkorrean erantzuteko, bada osotasunean eta gizatasunean oinarritutako laguntza modu bat da coaching-a: politikan, sindikalismoan, hezkuntzan, osasun arloan, kiroletan eta abarretan ezaguna da jada laguntza modu hori.

#### **Nori laguntzeko balio du coaching-ak?**

Adin eta espezializazio guztietako pertsonari eta erakundeei hobekuntza eta garapena lortzen laguntzeko entrenatzen gara. Horretarako, besteak beste, motibazioa, komunikazioa, konfiantza, oreka pertsonala eta nahien adierazpena lantzen dira.

Pertsonen, taldeen eta erakundeen ikuspegi boteretsua sustatu behar dugu, irtenbideak bilatu, gizatasunean eta pertsona guztien ikuspuntu sendoetan oinarrituta. Norberaren kontzientzia, izan nahi dugunarekiko erantzukizuneko konpromisoa eta hori lortzeko norberak dituen ahalmenekiko konfiantza indartzea da helburua.

Erakundeetako titularrentzat, zuzendarientzat eta talde profesionalentzat egokitzen ditugu gure entrenamenduak, eta gizabanako bakoitza printzipio, estilo eta jardunbide zehatz bidez entrenatzen dugu, entrena-tzaile-coach izateko.

#### **Saioak praktikoak ala teorikoak izango dira?**

Esandakoari barne lotura ematea du helburu gure lanak, eta horretarako entrenatzea. Gizakiok oinez ikasten dugun bezala egiten dugu hori. Ibiliz ikasi ibiltzen. Horretarako, beharrezkoa den markoteorikoa modu xumean eta laburrean eskaintzen da, gurasoek txikitik gertutik babesa eta motibazioa ematen diguten bezalaxe. Kasu guztietan, ibili, norberak egin behar du. Beraz, coach-entrenatzaile lana nola egin ikasteko, entrenatuz egiten dugu, hasierako pausoak elkarrekin eginez, eta, ondoren, bakoitzak bere bideari jarraituz, lortu arte. tuz, lortu arte.



# Nerea MENDIZABAL

## Ez dut zigortu nahi

### “Eraginkorrena haurrak jokaera ‘desegokiarekin’ zer esan nahi diogun ulertzea da”



**Nerea MENDIZABAL**

PSIKOPEDAGOGOA

**Zigorraren, xantaiaren eta mehatxuen aurrean, beste aukera batzuk badaudela erakutsiko du Nerea Mendizabal psikopedagogoak ikastaro honetan.**

**Luzaroan, hezitzaileek eta gurasoek ez dute zalantzarik izan haurra zigortzerakoan. Orain, zalantzan jartzen da zigorra, ezta?**

Bai, askotariko heziketa ereduak ari gara ezagutzen, eta ikusi dugu autoritarismoak (“nik esaten dudalako, eta kito, bestela...”) edo dena uzteko jorak (“dena aske duzu, eta egin nahi duzuna”) zer eragin izan dituzten haurraren, lortu nahi dugun jokaeran eta elkarrekin eraikitzen goazen harremanean. Eta, beraz, zigorrak zalantzan jartzera eraman gaituzte.

**Zuk diozun bezala, igeri egiten, sukaldean edo gidatzen ikastea normalizatzen dugu, baina seme-alabekin komunikatzen**

**ez dugu ikasten. Hori, ikas al daiteke? Nola egiten da?**

Beno, komunikatzen ikasi ez; izan ere, modu batera edo bestera, komunikazioa etengabea da, haurdunalditik gurasoek komunikatu egiten baikara haurrarekin, eta haurra ere bai gurekin. Ikas dezakeguna elkarrengana gerturatuko gaituen komunikazioa da, ez bakarrik seme-alabekin harremanak sendotzeko, baita gainerako harremanak sendotzeko ere.

Gehienok gure harremanen kalitatea hobetzeko gaitasunak eduki nahi ditugu. Tamalez, lehiatzerak, epaitzerak, eskatzerak eta diagnostikatzerak bideratutako eredu hezitzaileekin eta patroiekin hezi gaituzte gehienok, oso gaztetatik; aurreiritziak erabiltzerak eta giza harremanetan “ondo” edo “gaizki” dagoena adierazterak bideratu izan gaituzte, moral aldetik. Horretaz ohartzen eta baliabideak eskuratzen ikas dezakegu, guri gertatzen zaiguna adierazteko eta besteari gertatzen zaiona entzuten ikasteko.

**Marshall Rosembergen ‘komunikazio ez bortitzaren eredu’ aurkeztuko duzu ikastaroan. Azalduko diguzu, labur-labur, zer dioen eredu horrek?**

Marshall Rosembergekek eraiki duen ereduaren helburua ez da jendearen izaera edo gurea aldatzea, ez eta beste-enjoiak eta gureak aldatzea ere, gure bidea lortzeko; zintotasunean eta empatian oinarritutako erlazioak eraikitzean datza; horrela, lehenago edo geroago, kontuan hartuko dira denon beharrak.

Oso prozesu konkretua da, edozer gauza adierazteko eta entzuteko gure-

tzat oso baliagarriak izango diren pauso zehatzak ditu. Indarrak berreskuratzen, elkarren arteko konexioa lantzen eta bakea lortzen lagunduko digu horrek.

**Zigorraren, xantaiaren eta mehatxuaren alternatibarik ba al dago? Aipatuko diguzu horietakoren bat?**

Eraginkorrena haurrak jokaera “desegokiarekin” zer esan nahi digun ulertzea da, eta, horretarako, prozesuak halako arrasto batzuk ematen dizkigu: beharrak beteta edo bete gabe izatea da jokaera edo emozio guztien eragilea. Behar horiek identifikatu eta ezagutu gero, aukera onena kontuan hartuko duen modua diseinatu gero, jokaera edo emozio horiek ez dute modu horretan azaldu beharrik izango.

**Ikastaroa teorikoa eta praktikoa izango da. Nola egituratuko dituzu eskolak?**

Prozesua aurkezteaz gain, partaideek dituzten egoeretatik edo kasuetatik abiatuta, teoria hori praktikan jartzen saiatuko gara.



# Eduardo IBARNIA

## Ikasleak, beren guraso eta familien isla

### “Eskola eta familia elkarren beharrean”



**Eduardo IBARNIA**

BIDERATZAILEA. TALDEKO ETA BAKARKAKO FAMILIA  
KONSTELAZIOAK

#### **Familietan zein eskoletan gertatzen diren egoera gatazkatsuak ulertzea da ikastaroaren helburuetako bat. Zein izan ohi dira gatazka horiek?**

Gatazken sorburuan, ordena-gabeziak ditugu, eta dagokigun lekuan ez egoteagatik edota sistema errespetatu ez izanagatik gertatzen dira. Beraz, esparru horretan, errespetu falta, ordena hierarkikorik ez izatea, bazterketa, komunikazio eza, integrazio eza, diziplina-gabezia, arduragabekeria edota ardura besteen eskuetan uztea aipa ditzakegu. Hona hemen zenbait adibide:

- Ikasleak irakaslea ez errespetatzea eta hari gaina hartzea.
- Hezkuntza-esparruan, hainbat gurasok aintzat hartu nahi ez izatea irakasleak eskain ditzakeen iradokizunak edota aholkuak. Haien ustez, irakasleak ezin bidera ditzake ikaslearen egoerak, bere azalean jasaten ez dituen bitartean.

- Irakasle batzuek besteen iritzia aintzakotzat ez hartzea, eta beraien iritziaik besteen gainetik aurrera eraman nahi izatea. Eskola beraiei esker a-

terako dela aurrera pentsatzen dute, edota beraien dela...

#### **Gurasoek zein irakasleek asko espero izaten dute elkarrengandik, eta asko eskatu ohi dio batak besteari. Zer garrantzi du norberak bere lekua ondo ezagutzeak?**

Guztion arteko errespetuzko harreman baterako giltzarria norberak dagokion lekua ondo ezagutzea da, eta, nagusiki, dagokion leku hori betetzea. Pertsonari dagokion lekua ematean, merezi duen errespetua ematen zaio, eta, horrekin batera, baita dagokion ardura ere. Horrela, bakoitza aske da bere eginkizunen jabe izateko, eta soilik bere eginkizunaz arduratuko da.

Irakasle batek, gurasoen lekuan jarrin nahian dabilenean, uste du ikaslea gurasoengandik aska dezakeela. Irakaslearen aldetik harrokeria da hori, guztiok eta, bereziki, ikaslea ahultzen duen harrokeria.

Haien jarrera beste kontu bat litzake. Gurasoen laguntzarekin, nolabait ere, haien jarrera azter daiteke, eta berriro bidera dezaten oharpenak egin daitezke. Baina gurasoak baztertu gabe, betiere.

Bestalde, zenbait gurasok uste dute beren seme-alabek irakasleak baino hobeto irakats dezaketela; bide horretatik, ez dute onartzen irakaslearen heziketarako gaitasuna eta balioa, eta ez dute errespetatzen.

#### **Ikaslearen familia-sistema ezagutzeak eta errespetatzeak zertan lagunduko die irakasleari eta ikasleari berari?**

Irakaslearen ikuspegitik, kontua ez da ikaslearen familia-sistemaren nondik norakoak eta historia ezagutzea, sistema den bezala hartzea baizik. Ikasle horren aita-amak nolakoak diren

ikasleak eta diren bezala hartzea lagungarri gertatuko zaie.

Ikasleak ikusten duenean irakasleak bere gurasoak errespetatu egiten dituela, konfiantza jartzen du harengan, eta gutxitu egiten dira haren beldurrak eta segurtasunik eza, zabalagoa den sistema baten aurrean (eskolan); horrela, besteen aurrean irekiago ager daiteke, eta irakaskuntza hobea eskuratze-ko aukera izango du.

Bestalde, ikasleek eta gurasoek errespetatu egingo dute irakaslea, eta, horrela, guztion arteko harremanak eta komunikazioa arinagoak izango dira..

#### **Ikasleak beren gurasoen eta familien isla direla diozu, ikastaroaren izenburuan bertan. Nola eragiten du ikaslearen familiak edo familiarekin duen harremanak ikastetxean?**

Eskolak erakunde biziak dira; eskoletan biltzen dira geletako gorabeherak. Geletan, berriz, irakasleek jarrerak ebaluatzen dituzte, gorabehera irtenbideak ematen dizkiete, erabakiak hartzen dituzte, eta jarraitu beharreko ildoak eta arauak sortzen dituzte.

Ikaslea ez datorkigu eskolara bere familia-esparrutik banatuta, banako soil gisa; familia-egiturarekin datorkigu eskolara. Horrekin batera, bere familia-sisteman diren rolak, arauak, mugak, jarrerak eta ordena-gabeziak dakartza. Beraz, zuzenean eragiten du.

Gelan arazoak dituen ikasle bat dugula diogunean, badakigu ume horrek gela horren funtzionamendua baldintzatzen duela, baina umearen jarrera hori bere familia-esparrutik dakarren zerbait da, eta badakigu jarrera hori bizi duen egoera adierazteko edota islatzeko modu bat besterik ez dela.

# Elena LAIZ

## Irakurketa, bizitza osorako bidelaguna

“Testua ulertzea eta interpretatzea da irakurketa, eta hor atzean dagoen guztiaz jabetzea”



**Elena LAIZ**

ESKOLA TXIKIETAKO “ADIN ANIZTASUNA” IRAKASLEEN  
MINTEGIETAKO ARDURADUNA

**Umea irakurketa eta testuetara hurbildu dadin, zertarako bat eduki behar du eskolan, bizitzan bezala. Elena Laizek behar, desio eta helburu hori sortarazten eta bilatzen lagunduko die irakasleei, ikastaro honen bidez.**

**Irakurketa edo testuetara hurbiltzeko, beharra, desioa, helburu bat behar dela diozu, zertarako bat. Nola aurkitu zertarako hori? Zer egin dezake irakasleak ikasleak irakurketa hurbiltzeko?**

Bizitza errealean, inor ez gara joaten testuetara edo irakurtzera, desiorik, premiarik edo beharrik ez badago. Bizitzan, zertarako bat behar dugu irakurtzeko, eta premia bat asetzeko irakurtzen dugu; beraz, eskolan ere bai. Hori ulertu behar dugu lehenik eta behin, zertarako bat eduki behar dugula irakurtzeko.

Batzuetan, behar horiek ikasleengan bilatu beharko ditu irakasleak. Ikasleak berak zer desio, zer behar, zer zertarako dituen ikusi behar du irakasleak. Eta, beste batzuetan, irakasleak piztu egin beharko

du behar edo desio hori ikasleengan. Bienandik etorriko da irakurketa gerturatze-ko zertarako hori.

**Telebista, bideo-jokoak, Internet... oso baliabide pizgarriak ditu eskura umeak gaur egun. Baliabide horiek ematen ez diguten zer ematen digu irakurketak?**

Pentsa zer tresna dituzten umeek eskura! Baliabide horiek eskolan ere sartu beharko genituzke, eta beraiekin aztertu eta erabili. Tresna asko aisialdirako dira, baina ikasteko baliabideak dira beste asko. Umeak eskolan ikasle direla jakin behar dugu, baina ume eta hiritar direla bizitzan; eta eskura dituzten baliabide horiek eskolan erabiltzen eta irakurtzen ikasi behar dugu. Gaur egun, irakurketa ez da liburuetatik testu idatziak bakarrik irakurtzea, gauza zabalagoa da: irudiak irakurtzen ikasi behar da, Interneten gauzak aztertzen jakin behar da, gauzak aurkitzen, aukeratzen eta bereizten. Gaur egun irakurketa gauza zabalagoa dela ulertu behar dugu. Gure ikastaroa, dena den, testu idatziak izango da gehien bat.

Ondo irakurtzen ikasten badugu, hainbat irakurketa modu ezagutzen baditugu, gero hobeto moldatuko gara. Nik irakurketa ez dut ulertzen deskodetze bat bezala, testu batean jartzen duenaren deskodetze huts bezala; askoz harago doa irakurketa. Testua ulertzea eta interpretatzea da irakurketa, eta hor atzean dagoen guztiaz edo gauza askotaz jabetzea. Horrela sustatuko dugu iritzi kritikoa. Hitzak edo testu horrek esaten duena jakin behar dugu, baina ez da nahikoa. Testuingurua eta idazlearen intentzioa jakin behar ditugu, zer helbururekin idatzita dagoen testua...

Azken batean, testu batek informazio testuala dauka, testuan datorrena; baina testutik kanpoko informazioa ere badago, eta, horri buruz zenbat eta informazio gehiago eduki, hobeto interpretatuko dugu testua.

**Gaur egungo hainbat ikerketaren berri emango duzu ikastaroan. Nondik nora doaz ikerketa horiek, eta zeintzuk lirakeke ondorio nagusiak?**

Irakurketari buruzko ikerketa asko egiten dira, eta mota askotakoak izaten dira, gainera. Noski, helburuaren arabera ondorioak izaten dituzte ikerketa horiek, eta nik erabiliko ditudan irakurketa interpretatiboak dihardutenak dira batik bat. Niretzat ezinbestekoak dira Emilia Ferreiro eta haren taldearen ikerketak, adibidez, eta baita Frank Smithenak ere; eta Euskal Herrian, Uri Ruiz Bikandiren testuak..

**Ikerketetan bai, baina esperientzietan ere oinarritzen zara.**

Nik neuk edo nire lankideek umeekin egindako esperientziak azalduko ditut. Umearen ezaugarri bat ezagutzeko nahia edukitzea da, berezkoa dute jakin-mina; jakin-min horretatik abiatuta antolatzen eta planifikatzen dugu lana, eta haien behar eta helburuen arabera eta gure erronken arabera gerturatzen gara irakurketa eta testuetara. Esperientzia horien emaitzak eta prozesuak ikusiko ditugu.

**Irakurketa, askotan, bakarka egiten den ekintzatzat ulertzen dugu. Hala izan behar du nahitaez?.**

Irakurketan autonomia izaten ikasi egin behar da. Baina helburu horretara iristeko, laguntza behar dugu ikasketaren prozesuan. Testu mota bakoitzak bere ezaugarriak eta berezitasunak ditu, eta oso zaila da testu mota guztietan guztiz autonomoa izatea; batzuetan ez dugu tutik ulertzen bakar-ka, nahiz eta 60 urte izan, eta, irakurketa partekatzen eta sozializatzen denean, oso-agoa eta aberatsagoa da irakurketa, eta ulermena handiagoa da. Ikasketaren prozesua da eskolan egiten dena, eta, autonomo izateko prozesu horretan, oso garrantzitsua da sozializatzea eta elkarri eragitea.



# Iñaki PIKABEA eta JF LUKAS Euskara proben eraikuntza

## “Ondo ebaluatzeko kezka areagotu egin da, zorionez”



**Iñaki PIKABEA**

EHUKO IRAKASLEA

**Irakasleen lanetako bat ikasleak ebaluatzea da, eta ebaluatu beharreko ikasgaietako bat hizkuntzarena izaten da. Egin behar horretan, sarritan, ikasleak “ondo nola ebaluatu” erabaki behar izaten dute, eta horren arabera sortu behar dituzte azterketak eta ebaluatzeko beste hainbat tresna. Ebaluazioa zuzena eta lagungarria izan dadin kontuan izan beharreko hainbat irizpide azalduko dituzte ikastaroan.**

**Aspalditik dator euskara ondo ebaluatzeko kezka. Eraginik izan al dute horretan erakundeek ematen dituzten tituluek?**

Bai. Euskararen ebaluazioaren gaineko kezka areagotu egin dira ebaluazioak egin ondoren erakundeak tituluak ematen hasi direnean. Gaur egun badakigu euskarako tituluek garrantzi handia dutela esparru askotan: besteak beste, lan munduan. Tituluaren kontua alde batera utzita, hezkuntza formalean ere, profesionalek beti izan dute ikasleak ondo ebaluatzeko jakinmina, betiere, jarduera profesionala hobe-



**JF LUKAS**

EHUKO IRAKASLEA

tu nahian: zertan aurreratu duen ikasle bakoitzak, zertan ez, eta abar.

**Antzeman al duzue aldaketarik ebaluazio lan horretan?**

Zorionez, esan genezake ondo ebaluatu nahia areagotu egin dela. Alegia, ebaluatzea, beste edozein jarduera bezalaxe, espezializazioa da, prestakuntza eskatzen du, eta gero eta kezka nabarmenagoa sortu du, hutsegiteak baztertu nahian. Ildo horretan, esan genezake, irakasleek bi premia mota izaten dituztela: bata ohiko ikasleen aurrerapausoen ebaluazioari dagokiona; eta bestea, berriz, euskarako tituluren bat emateko egin beharreko ebaluazioari dagokiona. Lehen kasuan, euskarako irakasleek jakin-mina dute, ikasleei laguntzeko. Bigarren kasuan, euskarako irakasle asko, aldi berean, aztertzaile dira epaimahaietan edo ikastetxeetako ikasgeletan, eta, azterketa horien ondorioz, nota jarri behar dute, edo titulu eman edo ukatu.

**Ebaluazio zuzen bat egiteko zer izan beharko litzateke kontuan?**

Ebaluatzen hasi aurretik honako galdera honi erantzun beharko genioke: “Zertarako ebaluatu behar dugu?” Horren arabera, askotariko irizpideak izango dira. Gero, hainbat alderdi tekniko bermatu behar di-

ra: objektibotasuna, fidagarritasuna eta, azkenik, baliozkotasuna. Adibidez: ikasgai askotako helburuetan edo gaitasunetan, ikasleek hainbat prozesu mental landuko dituztela zehazten da (ulermena, analisia...), baina, ohiko azterketetan, ez da neurtzen edo ebaluatzeko ezagutza edo memoria besterik. Horrelakoetan, noski, ez da bermatzen inolaz ere azterketen baliozkotasuna.

**Aurreratu al ditzakezue adibide oker eta zuzen batzuk?**

Trebetasunak neurtzerakoan, esaterako, Erreferentzia Markoak ez du zehazten nola neurtu; aitzitik, trebetasun guztiak neurtu behar direla dio. Alde horretatik, zenbait ebaluazio sistematan trebetasun batzuk ez direla neurtzen ikusi dugu, edota neurtze sistema ahula dela. Aldi berean, edozein ebaluazio sistemak oinarrizko arau batzuei jarraitu behar die: neurtu beharrekoa neurtu behar du, eta ondo gainera. Adibidez, testu baten ulermena neurtu nahi bada eta, horretarako, aukera anitzeko galderak erabiltzen badira, enuntziatuan soilik beharrezko informazioa erantsi behar da, azterketaria alferrikerik nahastu gabe eta emaitza kutsatu gabe.

**Zer da, zehazki, ikastaroan egingo duzuen?**

Euskara probak aztertuko ditugu irakasleekin: itemen analisisan, fidagarritasunean, baliozkotasunean edota baremoen eta puntuazioen interpretazioan sakonduko dugu. Saioak teorikoak eta praktikoak izango dira, eta adibide okerrak eta zuzenak aztertuko ditugu. Gainera, hainbat jorratuko ditugu: gaitasunen ebaluazioa, azterketen eraikuntza, hizkuntza ebaluatzeko baldintzak, hizkuntza azterketak prestatzeko urratsak, Europako Marko Bateratuak dioena, itemen idazketa eta zuzenketak, proba baten egituraketa egokia, eta abar. Adibide zuzenak eta okerrak azalduko ditugu, ariketa txikiak egingo ditugu, eta norberaren kezkei modu praktikoan erantzuten ahaleginduko gara.

# Euskaraz informatuz hik hasi

hik hasiko  
harpidedunentzako  
**eskaintza berezia**  
BERRIAren harpidetza  
%50 merkeago\*

## H A R P I D E T Z A K A R T A

**Asteartetik igandera:** hilean 18 euro

**Asteartetik ostiralera:** hilean 11,5 euro

**Larunbata eta igandea:** hilean 7,5 euro

**PDF harpidetza:** hilean 11,5 euro  
(aukera honak ez du deskonturik)

\* Lehenengo sei hilekorako eskaintza.  
Hortik aurrera, %10 merkeago



Aukera ezazu  
**zure beharretara**  
ondoan egokitzen dena

### Harpidedunen beharretara egokitutako zerbitzua:

Goizean goiz BERRIA etxean, kioskoan,  
lantokian...

Kioskoan baino merkeago

Promozioetan eskaintza bereziak

Astero-astero opariak harpidedunentzat

Eguneroko papereko harpidetzetan,  
PDFetarako sarbidea doan

Harremanetarako:  
943-30 43 45 · harpidetza@berria.info

**BERRIA** sarean  
irakurtzen baduzu,

izan zaituz  
**berrialaguna**

[www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna)



# Ander AZKARATE eta Mireya DE CASTRO

## Gortasunaren erronkak

“Keinu-hizkuntzaren oinarriko irizpideak dituztenak gai dira gorren kolektiboaren integrazioa bermatzeko”



**Ander AZKARATE**

PSIKOPEDAGOGOIA

**Jendarteak eta, noski, eskolak ikasle guztiei erantzun egokia ematea eskatzen den garaiotan, gaur egun, gorrek oraindik ikasteko eta komunikatzeko dituzten trabez eta arazoez sentsibilizatu nahi dituzte hezitzaileak Ander Azkarate eta Mireya de Castro psikopedagogoek, gorren kolektiboaren bizi-kalitatea hobetzeko helburuz.**

**Gorren bat gertu ez badugu, haien eguneroko bizia ez dugu ondo ezagutzen. Zein dira eguneroko bizitzan izaten dituzten zailtasun nagusiak?**

Esan bezala, gorren bat gure eguneroko bizian ez badugu, zaila da beraiek izaten dituzten zailtasunak azaltzea; eta bakoitzak era pertsonalean bizi dituen zailtasunak ere badaude. Gainera, gure mundua, oro har, ez dago behar bereziak dituzten biztanleentzako pentsatuta. Adibidez, ez legoke eskailerarik, denok gurpil-aulki batean ibiliko bagina.

Mundua zailtasunik ez duten pertsonentzako dago prestatuta, eta hori da aldatu behar duguna. Egunero, beharrezkoak diren zenbait jardueratan, hainbat eta hainbat zailtasun izan ohi dituzte: tren askotan, geldialdiei buruzko infor-



**Mireya DE CASTRO**

PSIKOPEDAGOGOIA

mazioa ahots batek ematen du; medikuarengana joateko, interprete baten laguntza behar dute, bestela, ezinezkoa bailitzateke komunikazioa; telebista egokitua ez da existitzen ia; oinarriko hiztegia besterik ez dute...

Komunikatzeko zailtasunak azpimarratze-koak dira; izan ere, gure eguneroko bizitzan, etengabe ari gara informazioa trukatzeko, eta hizkuntza desberdina izateak (edo ez izateak), hasiera batean, ateak itxi egiten dizkizu.

**Egoera horien aurrean erraztasunak emateko eta benetako inklusioa landu ahal izateko, zer premisa hartu beharko genuke gogoan lehenengo? Hasteko, gortasunari buruzko ikuspegia aldatzetik hasi beharko genuke, ezta?**

Dudarik gabe, inklusioa landu ahal izateko, gorren inguruko ikuspegia aldatu egin behar dugu, eta oraindik asko dago egiteko; baina kontua da intentzioa eta gogoia baditugula.

Normaltasunaren aurrean, mito asko izan dira iraganean (eta gaur egun), eta denok garela desberdinak jabetu behar dugu, guztiok daukagula zer edo zer berezia, eta horixe dela dibertsitatearen oparirik gorenena.

**Ba al dago gorren gaiari buruzko sentsibilitaterik, gaur egun, euskal jendarteak? Zertan eragin dezakegu?**

Denbora pasatu ahala, gauzak aldatzen doaz, baina bide luzea dugu oraindik gure aurrean, eta ezinbestekoa da sentsibilitatea lantzea. Pertsona gorren bat ezagutzea litzateke egoera al-

datzeko aukerarik onena, mito guztiak apurtzeko eta haien bizitza ulertzeko.

Bien bitartean, gorren inguruko informazioa gertu izateak asko laguntzen du; batez ere, pertsona guztiak ez garela berdinak irakatsi behar zaie txikitatik haurrei, eta guztiok elkar errespetatu behar dugula. Haurrek eraikiko dute etorkizuna, eta, mundu hobe lortzeko, ezinbestekoa da beraiekin lan egitea.

**Ikastetxeetara etorritik, zein dira gorrek dituzten behar nagusiak? Nola erantzun diezaieke ikastetxeak haien beharrei?**

Ikastetxeetan, gorrek traba asko izaten dituzte, batez ere, komunikatzeko arazoak. Kontuan izan behar da biztanle gehienek ez dakitela keinu-hizkuntza, eta, beraz, eskoletan ikasteko eta lagunekin erlazionatzeko zailtasunak dituztela. Gainera, eraikinak, gelaren banaketa, materialak, eta abar, ez daude egokituta, eta hori guztia landu beharra dago.

**Nola lagun dezake gorren integrazioan edozein irakaslek –edozein pertsonak– gorren hizkuntzaz zer bait jakiteak?**

Oso lagungarria da: kontuan hartu behar dugu gorrek, keinu-hizkuntzari esker, komunikatzeko bidea aurkitu dutela, eta gauza jakina da komunikazioa ezinbestekoa dela, geure gizar-tean parte hartu ahal izateko. Beraz, hizkuntza horren oinarriko irizpideak dituztenak gai dira kolektibo horren integrazioa bermatzeko, behar duten erantzuna emanez.

Laburbilduz, gure hizketako ahotsaren erabilaren oinarri bat ikasiko dugu; ahotsa osantsu dagoen ala ez bereizten ere saiaturiko gara, eta, azkenik, ditugun prebentzio-mekanismoak ezagutuko ditugu.

**Zaila al da gorren hizkuntza ikastea?**

Keinu-hizkuntza ikastea ez da batere zaila, baina denbora eskatzen du. Hasierako “txipa” aldatzea lortuz gero, aurrera begira, keinu berriak ikasten jarraitzea izango da eginkizun baxarra. Bestalde, ezinbestekoa da praktikatzeko, beste edozein hizkuntzatan bezala. Keinu piloa dago, eta oso erraz ahazten edo nahasten dira.

Nahiz zaila edota erraza izan, ezinbestekoa irudituko behar zaigu, gorrek behar duten erantzuna emateko gai izateko. Denoi gustatzen zaigu edozein lekutara joaten garenean geure hizkuntzan erantzutea; beraz, keinu-hizkuntza ikasteari ekin behar diogu!



# Yolanda ARRIETA

## NitikGura. Idazketa sortzailea

“Euskaraz idazteari gustua hartzeko, hainbat baliabide probatuko ditugu”



**YOLANDA ARRIETA**

IDAZLEA ETA LITERATURA ANIMATZAILEA

**Yolanda Arrietak “zakukada hazi” eman nahi dizkie ikastaroan parte hartuko dutenei; joko eta dinamika askeak planteatuko ditu, eurek sortu ahal izateko eta gelan ikasleekin idazketa sortzailea landu ahal izateko.**

**Askotan, idazteko zerbait daukagula iruditzen zaigu, baina lotsa edo beldurra sortzen zaigu, eta ez gara paperaren aurrean jartzen. Izu hori gainditu al daiteke? Ikas al daiteke?**

Uste dut baietz. Benetako ikasgaiak ekinaren bidez ikasten ditugu, eta, horrenbestez, esango nuke idatziz ikasten dela idazten, nahiz eta idazketa-prozesuan beste aditz askok ere lekua izan: idatzi, irakurri, ozen irakurri, norbaiti irakurri, entzundakoa idatzian txertatu, aldatu, eraldatu, itxuraldatu, ezabatu, berriro hasi, berridatzi...

Hala ere, paperaren aurreko izua ez da horren txarra. Erronka bat da. Eta erronken aurrean nork bere hautua egi-

ten du. Esan dezakegu: “Zer zaila”; esan dezakegu: “Ez dakit nondik hasi”; esan dezakegu: “Nola egin behar ote da hori?”; edota, ezerezera saltotxiki bat ematen ausart gaitezke, eta esan dezakegu: “Ea zer ateratzen zaidan”.

**Idazketa sortzailea landuko duzu ikastaroan. Zer da ikas daitekeena? Zertan lagun dezake bide batzuk edo baliabide batzuk ezagutzeak?**

Idazketa sortzaileak aukera ematen digu hitzen bidez eremu ezagun eta ezezagunetan arakatzeko, ustez galdutzat ematen genituen oroitzapenen zertzeladak berreskuratzeko, emozio lagunen eta kontrajarrien artean paseatzeko, segundo bakoitzaren pertzepzioa bikoizteko, *nitik gura* doan dinamika barnekoi baina partekatu batean.

Saioen hasieran, beroketa-jokoak egingo ditugu, eskua askatzeko, luma berotzeko eta irudimena abian jartzeko. *Bi minutukariak* izeneko proposamenak egingo dira, bat-bateko idazketa lantzeko. Sortzen diren idatziak ozen irakurriko dira, sormen-prozesuaren alde pertsonal eta originala aldarrikatzeko.

Gero, Literaturaren kategoria nagusiak abiapuntutzat harturik, idazlan txikiak sortuko ditugu, genero guztiak lan-tresna eta baliabide bihurtuta. Sorturiko hainbat zirriborro aztertuko ditugu taldean, hiru ezaugarri oinarri hartuta: argitasuna, ulergarritasuna eta freskototasuna. Saio bakoitzaren hasieran, aurreko egunean egindakoa gogoratuko da, ohar laburren bidez.

Laburbilduz, euskaraz idazteari gustua hartzeko, hainbat baliabide probatuko ditugu. Azken finean, zein da asmoa? Zakukada hazirekin bueltatzea etxera, gogo bero eta ilusioa esna.

**Umeek ikaragarriko sormen-gaitasuna daukate. Zertan lagun diezaioke irakasleari berari eta haurrari irakasleak idazketa sortzaileari buruzko nozio batzuk edukitzeak?**

Plan zehatzen eta eduki egituratuaren lagungarri den zerbait eskaini nahi dut. Idazketaren alde sortzailea lantzean, joko eta dinamika askeak eskaini nahi dizkiet irakasleei, ikastetxeetako material kodifikatuan txertatzeko modukoak.

Haurrei begira baina bitartekari helduekin arituko naizenez gero, irakasleek aukera bikoitza izango dute lantzean. Batetik, partaide aktibo eta heldu gisa parte hartzeko, nork bere izenean. Eta, bestetik, eskarmentu horrekin batera, material mordo bat jasotzeko; gero, gelan erabili ahal izango dute, beraien nahi eta beharretara egokituta.

**Bakarka egiten den ekintzat hartzen da sarri idazketa, baina ez du zertan hala izan, ezta? Sortutako hori partekatzeak zer ematen dio idazleari?**

Entrenamendu moduko zerbait bezala ikusten dut idazketa, eta, neurri handi batean, iruditzen zait bakarkako lana dela, bai, nork bere baliabide eta mugekin topo egiteaz batera, nork bere esateko modu partikularra deskubritzeko erronka eskaintzen duelako. Baina plazer hori hirukoiztu egin daiteke, batez ere, ekimen berean ari direnekin partekatzen denean. Gainera, abiapuntu beretik zer-nolako emaitzak ateratzen diren ikusteak aukeren eremuak zabaltzeaz gain, gauzak esaten jarraitzeko gogo bistarazten du, eta “ondo” edota “gaizki” kategoriak apur bat apartatu, idazketa bera, prozesua bera, hots, bidea bera, gailentzeko.

# Karlos GARAIALDE

## Matematika, manipulatzeko materialekin

“Geu gara eredu, eta nekez ereingo dugu jakin-mina, gugan hazi hori garatuta ez badago”



**Karlos GARAIALDE**

IRAKASLEA

**Matematikak eragin handia izan du gehienon autoirudian. Beraz, ten-tu handiz kudeatu beharreko gaia da irakasleontzat. Haurrek burua martxan izateko, eskuekin aritu behar dute, beldurrik gabeko lankidetzan, konfiantza-giro baikor eta kooperatiboan jardun daitezten. Horretan guztian sakontzeko baliabideak aztertuko dira ikastaroan.**

**Matematikari buruzko ikastaro bat eman behar duzu aurtengo jardunaldietan. Zu matematikaria zara?**

Ez, ez horixe. Maisu soila naiz. Azken urteotan, gehiago nabil arlo horretan, eta, dibulgazioaren arloan, betidanik izan dut zaletasuna gai batzuk jorratzeko; baina nire prestakuntza akademikoaren «gailurra» ulertu gabe ebazten nituen Batxilergoko integral haiek izango dira. Ez da matematikaria izan behar, Lehen Hezkuntzako geletan matematika taxuz lantzeko; baina, kontuz, ez baita nahikoa «lau eragiketak» egiten jakitea. Badira gauza garrantzitsu batzuk, mai-su-maistrok garbi izan behar ditugunak.

Batetik, psikopedagogiaren eskutik, haurrek nola ikasten duten jakin behar dugu; eta, bestetik, irizpide argiak izan behar ditugu arlo-riburuz, lehentasuna zerk duen jakiteko. Helbu-

ria eguneroko bizitza hobeto ulertuko eta kudeatuko duten herritarrak heztea da, eta, aldi berean, pixkana-pixkana beren burua erabiltzen eta pentsatzen ikastea.

**Eskolan ikaslearen burua martxan jartzea izaten da gure kezka nagusietako bat. Nahikoa ote da, ordea?**

Erronka itzela da eskolan eskaintzen diegunarekin ikaslearen buruak martxan jartzea, baina, nahi hori bideratzen joateko, oso kontuan hartu behar dugu emozioen mundua.

Gure esperientziari erreparatzen badiogu, onartuko dugu matematikak bereziki eragin handia izan duela gure autoirudian. Tuntu handiz kudeatu behar dugu gai hori irakasleok. Ikertzea eta sortzea bultzatu nahi badugu, prozesuei emango diegu nagusiki garrantzia; eta akatsari beldurra galtzea nahi badugu, gure zuzenketa-estiloak nahi horrekin bat egin beharko du.

Buruak martxan jartzeko, eskuen laguntza behar dugu. Haurrek muga jakin batzuk dituzte era abstraktuan pentsatzeko, eta, beraz, guztiz beharrezkoak dira manipulazioa eta materialen erabilera.

Beraz, burua martxan izateko, eskuekin aritu behar dute haurrek, beldurrik gabeko lankidetzan, konfiantza-giro baikor eta kooperatiboan.

**Nola susta dezakegu matematikako saio dinamikoa eta parte-hartzaile bat Lehen Hezkuntzan?**

Nire ustez, haurren interesetan arakatzekak erakusten digu bidea. Lehen Hezkuntzako ikasleak haurtzaro betean daude; begiak zabal-zabalik dituzte, eta, oro har, jakin-minez bizi dira. Handitzen ari dira, eta hobeto ulertu nahi dute eguneroko bizitzaren funtzionamendua. Zerbakiz inguratuta bizi gara, komunikabideak taulaz eta grafikoz gainezka egoten dira, eta geometria aurkituko dugu eraikinetan, kiroleetan edo gure jantzien estanpatuetan ere. Eskolak ireki behar ditugu, eguneroko bizitza sar dadin.

Jolasa da haurren eginkizunik natural eta gogokoena. Inongo beldurrik gabe ekarri behar ditugu jolasak gure geletara: banakakoak eta taldekoak, irabazteko estrategian oinarritzen direnak eta espazioaren azterketarako egokiak direnak, euskarri fisikoa edo birtuala dutenak... Jolasak partaidetza bultzatzen du: motibazioa pizten du, eta akatsa erlatibizatzen.

Erronkak eskaini behar dizkiegu: ikerketa-

rako eta espekulaziorako giro batean, norberaren ideiak eta lorpenak partekatzeko aukerak, alegia. Horra hor triangelu bat: eguneroko bizitza aztertu, jolas egin eta erronkak eskaini.

**Piztu ote dezakegu jakin-mina eta erein matematikarako zaletasuna?**

Gakoa arestian aipatutako giro horren baitan dagoela pentsatzen dut, eta hori, nagusiki, irakasleon esku dago. Irakasleok aukeratzen eta proposatzen ditugu jarduerak, etengabekoa da gure esku-hartzea errendimenduaren eskakizunean nahiz harreman-estiloan, eta geuk ematen diegu balio gauzei. Geu gara eredu; nekez ereingo dugu jakin-mina, gugan hazi hori garatuta ez badago.

Indar handia, ilusioa eta gogoia behar dira egunero erronka hori gauzatzen joateko. Indarra eta ilusioa ere bai, ingurutik datozkigun mameuei eusteko; alde guztietatik egiten zaizkigun eskakizunen oparotasunak eta pairatzen ari garen baliabideen murrizketak talka egiten dute gugan.

**Ikastaroan ipuinak, filmak, musika, eta abar erabiliko dituzu. Zer harreman dute, bada, matematikarekin?**

Bikote klasikoa dugu matematikako irakasleak eta arbelak osatzen dutena, baina ez da nahikoa. Aurrera egiteko, etengabeko gaurkotze didaktiko eta teknologikoa behar dugu. Teknologia berriez hitz egiten dugu, baina Lehen Hezkuntzako haur guztiak XXI. mendean jaioko dira, irudiaren eta bideo-jokoen munduan jaioko dira; ez dute Internetik gabeko garairik ezagutu.

Baliabide horiek erabiliz, elkarrekin gauzatu ditugun saioei aire freskoa eman nahi nieke, eta tradizionalki astuntzat hartzen diren gaiei begiratu alai eta arinago bat eskaini, zeharka bada ere.

Gai asko ukitu ditut, eta ez pentsa nire eguneroko lanean denak bideratuta ditudanik. Saiatzen naiz, lana egiten dut, eta batzuetan gozoa ateratzen da, eta gazia besteetan. Hiru goiz ditugu elkarrekin lanean jarduteko: zalanza berriak sortuko dira, leihu batzuk irekitzen saiatuko gara; hautsak astinduko ditugu, eta ilusioak hauspotuko.

Ondoren, ongietorria emango diegu oporrei.



ELHUYAR  
ZERBITZUAK



Elhuyarren  
smartphoneetarako  
aplikazioa euskara  
ikasteko

**Ikasi euskara**

Aprende euskera

Learn Basque

Apprenez le basque

Nabigaziorako hizkuntzak:  
gaztelania, ingelesa eta  
frantsesa.



Salgai 3 €-an.  
Deskargatu doako  
demoa.

Ikasi euskarazko  
oinarriko hiztegia:

- Ohiko egoeretan euskaraz komunikatzeko tresna.
- Entzuteko ariketak, mintzatzeko ariketak eta irakurri eta idazteko ariketak.



[www.elhuyar.org/kxo!](http://www.elhuyar.org/kxo!)



# Ixabel MILLET

## Ipuinak antzerki bihurtzen direnean

“Ipuinak antzeztoki batean sartzen dira, eta orriak pasatuz kontatzen dira”



**Ixabel MILLET**

IPUIN KONTALARIA ETA IDAZLEA

**Irakaskuntzako eguneroko jardunean daude ipuinak, eta helburu askotarako erabiltzen dira. Ikastaroan, ipuinak erabiltzeko bi teknika eskainiko dira: ipuin bat antzerkirako testu bihurtzea, eta kamishibaia egiteko eta antzezteko teknikak. Hori guztia praktikan oinarritutako lanmetodologia baten bidez proposatuko da.**

**Ipuinak oso hedatuak daude irakaskuntzako eguneroko jardunean. Zein helburutarako erabiltzen dira, batez ere?**

Irakaskuntzan, ipuinak kontatu egiten dira gehienbat; haien baitan, goxotasunaz gain, gaur egungo eta aitzinako jakinduriaren zati eder bat baitaigo.

Horretaz gain, helburu jakin baterako edo besterako ere erabiltzen dira; adibidez, balio bat lantzeko, ipuinaren egitura jorrazteko, ipuinen ezaugarriak ezagutzeko, eta abarretarako.

Kontua da, une horretan, ipuina bihotzetik burura eramaten den unean, bere baitako magia galdu egiten duela, sast: tresna bihurtu dugu, eta lanabes batek ez du magiarik, ez baitu bihotzik.

Horregatik, ipuinak erreminta gisa erabili ostean, haien txokora itzuli behar dira azkar-azkar, bihotzaren hondora.

Horrela, prest izango dira hurrengo batean kontatzeko edo erabiltzeko, eta berriro ere gozatzeko aukera izango dugu denok.

**Askotan, ipuin bat antzezteko garaian, testua hartu, eta zatitu egiten dugu: narratzailea izaten da pertsonaia nagusia. Ba al da bestelako aukerarik?**

Antzerki klasikoan, Antigona obran, adibidez, rol nagusietako bat, koroarekin batera, narratzaileak zuen. Denborak aurrera egin ahala, narratzailearen pertsonaia desagertu egin zen, eta, gaur egun, antzerki modernoan,



guztiz galdu da.

Ipuinetan, aldiz, eta batez ere ipuin klasikoetan, narratzaileak presentzia handia du; narratzaile orojakilea edo pertsonaia izango da, baina narratzailearen rola garrantzitsua izango da.

Horregatik, ikastetxeetan ipuin bat antzeztu nahi denean, testua hartu, eta zatitu egiten da; narratzaile-rola den bezala uzten da, eta pertsonaia nagusietako bat izango da.

Jakina, denbora faltagatik edo bestela egiteko teknikak ez ezagutzeagatik egiten da horrela; eta besterik ez dagoen bitartean, oso ongi egina, gainera!

Ikastaro honetan, baliabide gutxi eta erraz batzuk erabiliz ipuinak antzeztan moderno bihurtzen ikasiko dugu.

**Ikastaroan, antzeztoki txiki batean kamishibaia egiteko eta antzezteko teknikak eskainiko dituzu. Zer dira, ordea, kamishibaia?**

Kamishibaia Japoniatik ekarritako teknika bat da: ipuinak antzeztoki txiki batean sartzen dira, eta, orriak pasatuz, ipuina kontatzen da.

Nik urteak daramatzat ipuinak teknika horren bidez kontatzen, ipuin japoniarrak gehienbat, jakina!

Izan ere, teknika horren bidez, edozein ipuin kontatu daiteke. Erraza da antzeztokia egitea, marrazkiak egitea... Ikasleek beraiek edozein ipuin presta dezakete, gelako ikasleei edo ondoko gelakoei (txikiei, adibidez, edo handiei, ausartzen badira) ipuin bat horrela kontatzeko!

Horixe izango da ikastaro honetan eskainiko dena. Kamishibaia egiten eta erabiltzen ikasiko dugu; irakasleak zeharkako bitarteko bikaina aurkituko du, eta ikasleei sortzeko aukera paregabea proposatuko zaie horrela.

# Alazne UGARTETXEA

## Txotxongilo tailerra

### “Txotxongilorik errazena munduko altxorrik preziatuen bihur daiteke”



**Alazne UGARTETXEA**

HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

**Eskulanak egiterakoan, gaizki egingo dugun beldurra ez digu gozaten uzten askotan. Horrek edota askotan plastikako txokoan zer egin ez dakigula egoteak ez dute lana errazten. Horregatik, ikastaro honen proposamena eguneroko lanean erabilgarri gertatuko zaizkigun txotxongiloak egitea da, eta esku-eskura ditugun materialak erabiliko ditugu horretarako. Halaber, egindakoa-ren balioa ikusi ahal izango dute, abestien eta ipuinen mundura hurbilduz eta antzeppen bat eginez.**

**Rafa Vilaren eskutik murgildu zinen txotxongiloen munduan... Nor da, ordea, Rafa Vila?**

Rafa Villa esparru asko jorratu dituen artista bat da. Cuencan (Espainia) jaio zen, baina, gaztetan, Getxora etorri zen bizitzera. Margolaria da (New Yorken eta Madrilen egin ditu azken era-

kusketak), eta antzerki irakaslea. 80ko hamarkadan, txotxongilo talde bat sortu zuen. Duela 20 urte antolatu zituen haurrentzako lehenengo tailerrak, Bilboko jaietan. Orduan hasi nintzen harekin lanean, eta, geroztik, elkarrekin ibili gara udalekuetan eta ludoteketan, haurrentzako txotxongilo tailerrak ematen.

Asko ikasi dut harengandik, eta, batez ere, irudimena eta sormena eguneroko lanean erabiltzen irakatsi dit.

**Zein dira, zure ustez, plastikako txokoan irakasleek topatzen dituzten eragozpen handienak?**

Nire ustez, irakasleen prestakuntzan ez zaio behar den garrantzia ematen plastika munduari, eta horren ondorioa da arlo horretan adierazten dugun segurtasun falta: betiko eskulane-tatik ateratzen bagara, baliabiderik gabe gaude, eta ez dakigu zer egin.

Askotan, ez ditugu ezagutzen merkatuan dauden material berriak eta horiek ematen dizkiguten aukerak: matematikan, hizkuntzan..... Beti gaude birziklatzeko ikastaroak egiteko prest, baina plastikari buruzkoak ez dira horren ugariak, edo beste une baterako uzten ditugu.

Bestalde, ezinbestekoa da lan egiteko espazio egoki batedukitzea: batzuetan, lekua sortzeko zenbat mahai edo aulki mugitu behar dituzun pentsatze hutsak nekatu egiten zaitu, eta zerbait berezia egiteko gogoa kentzen dizu.

Ez dugu ahaztu behar gero eta zailagoa egiten zaigula gaurko haurrak eskulane bidez harritzea, denetarik daukate-eta; baina, askotan, txotxongilorik errazena munduko altxorrik preziatuen bihur daiteke, beraiek egindakoa delako.



**Zer alde dago gure ikasleekin txotxongiloak egitearen edo gure ikasleentzat txotxongiloak egitearen artean?**

Askotan, liburuei, Interneti edo ikastaro batzuei esker, oso eskulan interesgarriak egiteko gai gara. Gure gelako ikasleekin saiatzen garenean, ordea, gure lana aurrera eramateko zailtasunak ditugula konturatzen gara. Hainbat arrazoi direla medio, azkenean guk geuk egiten dugu. Ikasleak ikusle bihurtzen dira, eta aspertu egiten dira azkenerako.

Tailerretan eraikiko ditugun txotxongiloak inolako arazorik gabe egin ahal izango dituzte gure ikasleek: gure laguntzarekin, noski. Oraingoan, haiek izango dira protagonistak.

**Neska-mutiek txotxongiloak egin ondoren, zer aukera dute haien "bizitza" emateko?**

Txotxongilo bati "bizitza" emateko, mugimendu pixka bat eta hitz batzuk baino ez dira behar. Horrez gain, abestu daiteke, edo elkarriketak sortu, ipuin ezagun bat edo asmatutako bat kontatu, eguneroko egoerak antzeztu, eta abar. Txotxongiloek ematen dizkiguten aukerak ugariak dira. Haurrentzat garrantzitsua da txotxongiloek zerbaiterako balio dutela jakitea. Oso lagungarria da beraien "gorputzaren luzapen" bat dela sentitzea, eta barnean gordeta dituzten sentipenak (amorrua, beldurra, lotsa poza,...) kanporatzeko bide bihurtu daitekeela jabetzea.

# Marina PINTOS

## Yoga saioak irakasleentzat

“Yoga teknikek gure ingurukoekin erlazioak hobetu eta osasun orekatsua lortzen dute”



**Marina PINTOS**

PIANOJOLEA, MUSIKA ETA YOGA IRAKASLEA

**Milaka urte ditu Yogak, belaunaldiz belaunaldi praktikatu da gaur egun arte. Yoga teknikek norberaren osasun fisikoa eta psikologikoa hobetu nahi duen edonorentzat da eragingarria, eta baliagarria da ikasleekin egiteko ere.**

**Gai bakoitzaren azalpen teorikoa egin ondoren, teknikak praktikak jarriko dituzte batez ere praktikoa izan den ikastaroan.**

### Zer da Yoga, zertan datza?

Yoga, orain dela milaka urte Indian sortutako zientzia-filosofia da. Bere barnean, zientzia, filosofia, psikologia, natur-medikuntza eta espiritualtasuna biltzen dira, besteak beste. Yoga sistematikoki praktikatu da belaunaldiz belaunaldi, norberaren oreka, osasun fisikoa eta psiko-emozionala hobetzeko.

### Hezitzaile edo irakasle izateak ba al du guregan ondoriorik?

Gaur egun, irakasle edo hezitzaile

izatea ez da lan erraza: eskolak antolatu, azterketak prestatu eta zuzendu, bilerak, ebaluazioak, gurasoekin elkarriketak, ikasleen kontzentrazio eza, motibazio falta, aztoratutako emozioak, jarrera desegokiak... Horien guztien ondorioek nahi baino eragin handiagoa dute hezitzaileengan: antsietatea, estresa, gaitz fisikoak, urduritasuna, lo egiteko arazoak, kontzentrazio falta, tristura, depresiva dira ondorio horietako batzuk.

### Yoga teknikek lagun al dezateke ondorio hoietako batzuk hobeto eramaten?

Yogako teknikek eragin horiek arindu eta aurreikus ditzakete. Era berean, gorputza indarberitu eta lasaitu egiten dute, arnasteko gaitasuna hobetu, odol zirkulazioa aktibatu, kontzentrazioa erraztu, errendimendu fisikoa areagotu, ingurukoekin ditugun harremanak hobetu... Azken batean, teknika horiek, osasun orekatua lortzen laguntzen dute.

### Zein helburu ditu batez ere praktikoa izango den ikastaro honek?

Lehenik eta behin, asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitu, lasaitu, indartu, energia harmonikoki mugitu eta jarrera desegokiaren ondorioz agertzen diren arazo fisikoak aurreikusi eta landu (herniak, lordosiak, zifosiak, eta abar).

Bestalde, arnasketak, nerbio-sistema eta emozioetan daukan eragin zuzenaz jardun eta teknika horiek behar diren mementuetan erabiltzen ikastea da beste helburu bat.

Guretzako teknikak ez ezik, ikasleekin landu ahal izateko modukoak diren teknikak ere ikasiko ditugu: adimena lasaitu eta kontzentratzeko teknikak, hain zuzen. Halaber, bisualizazioen bitartez norberaren eta ikasleen ikasteko gaitasunak handitzen ikasiko dugu.

Azkenik, erlaxazio sakonaren bitartez, fisikoki nahiz psikologikoki lasaitzen eta eraberritzen ikasiko dugu.





# Jose Ramon MAUDUIT

## Haurrentzako masajea

**“Zentzumenak abian jartzen badira, bizitzaren zentzua errazago bilatzen da”**



**Ramon MAUDUIT**

PSIKOLOGOA ETA PREBENTZIOAN ADITUA

**Haur bakoitzaren garapen fisikoa eta emozionala, eta familian bertan eta familiaren eta eskolaren arteko egokitzapen prozesuak ikusiko dira teoriko-praktikoa izango den ikastaro honetan.**

### **Zertarako balio du haurrentzako majaseak eta zer onura dakartzkio haurrari?**

Lehenik eta behin, haurrak dituen gaitasunak kontuan edukitzeko balio du. Era berean, haurraren eta gurasoen arteko komunikazioa errazteko balio du; masajearen bitartez, adierazpena, mugimendua, mimika, ahotsa eta abar transmititzen direlako, eta jolas egiten delako.

Bigarrenik, hainbat tentsio biguntzeko, arintzeko eta bideratzeko balio du. Beti esaten dut, haurraren zentzumenena, usaimena, ikusmena, entzumenena, ukimena eta dastamena hasieratik abian jartzen badira, bizitzaren zentzua errazago bilatzen dela.

### **Zure ikastaroa “ukitu + sentitu = kokatu” ideian oinarritzen duzu...**

Ukitzeak pertsonak ukitzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia. Hori unibertsoaren funtzionamenduan dago kokatuta. Gu zerk ukitu gaituen eta nola ukitu gaituen, horrek ekarri gaitu gaurko gaitasunak edukitzera edo bizitzera.

Sentitzeak, berriz, jaiotzatik bertatik, sentitzeko modu bat garatzeari egiten dio erreferentzia. Pertsona edo animalia bakoitzak bere espezieari dagokion berezko hezte prozesua du. Horren ondorioz, hazten garenean, gure egitura izaten dugu, eta munduarekin erlazionatzeko modu bat edo bestea.

Sentitzeak, beraz, izugarritzko garrantzia du, gure benetako kokapen eta integrazioa heltzen garenean. Nola gauden kokatuta ez da geure buruarekin gaudela sentitzea soilik; horrekin batera, ondo jakin behar da zein ingurutan gauden, eta inguru horrekin harremanetan nola kokatzen garen, eta nola eboluzinatzen dugun.

### **Larruazala ukitzeko premiaz, sentitzeko premiaz hitz egingo duzu ikastaroan. Zer-nolako garrantzia du larruazalak?**

Garrantzi handia du. Izan ere, kokatu esaten dugunean, ondo nabaritu behar dugu geure barrukoaren eta kanpo-koaren arteko aldea. Eta hori larruazalaren bitartez egiten dugu. Larruazalak izugarritzko sentsibilitatea dauka, burmuinean kokatzen da.

Masajeak azala lantzen du, eta gorputzeko atalak lantzen dira horrela, tentsioa eduki dezaketen atalak. Tentsioa saihestearen ondorioz, barruko ahalmenak bideratu egiten dira.

Larruazala gorputzeko zatirik zabalena da, eta izugarritzko garrantzia dau-

ka burmuinean: horrek, garrantzi handi dauka haurraren lehendabiziko urtean: gorputza zutik jartzeko bidean artikulazio gzutiak masajeen bidez ondo goxatu baldin badira, gorputza lurtean jartzeko modua oso koherentea izango da gorputzeko sentipenekin. Bizitzaren bizitasuna barruan sentituko du. Horrela, tentsioak ere sahiestu edo bideratu egiten dira, gorputzak ez du tentsio horiekin borroka egin beharko

### **Zer jakin behar dugu haurrei masajeak emateko? Nola has gaitetzke?**

Hasteko, haurraren gorputzaren gainean eskuak jartzen ditugunean, haren erreakzioak eta gureak ikusi behar dira. Nola gauden eta haurra nola dagoen ikusi behar da, zein den bakoitzaren egoera. Une batzuetan ezinezkoa da masajeak ematea; beste batzuetan, egoera egokia da, eta aurrera, beraz: gorputzari tankera hartu, eta, eskuak sartuz, jolas bat sortu. Hori da egin behar dena. Jolas horretan sortzaile izanez gero, oso lan polita egiten da.

Baina ez da masajea ematea soilik. Masajea ematen duena lurtean dago, eta jolas egitera ohitu behar du. Elementu garrantzitsuena jolas egitea da. Jolas egiteko gai baldin bazara, zuk zeure barruarekin malgutasun handia daukazula esan nahi du, eta haurraren malgutasuna ere kontuan hartzen ari zarela, eta hori lantzen saiatzen ari zarela. Jolasak izugarritzko garrantzia dauka. Jolasaren bitartez, mimika eginez, kontuak esanez... haurrari harekin zaudela sentiarazten diozu, harekin jolastan eta hura kontuan hartzen ari zarela, harentzat onena lortu nahian eta harekin aberastu nahian.

# Zigor URZELAI

## Irakasle magoa (majoa)

**“Magiak egia absoluturik ez dagoela erakusten du, eta gauzak erlatibizatzen laguntzen du”**

Haur, gazte zein heldu, magiak edonor liluratzeko balioa duela uste du Zigor Urzelaik. Horregatik, ikasleen arreta berenganatzeko eta ikasleengan jakin-mina pizteko, eskolan magia oso erabilgarria dela dio. Haurrengan, berriz, magiak enpatia eta autoestimua sustatzen omen ditu.



**Magiaren bidez, autoestimua, enpatia, adierazkortasuna, jendaurrean hitz egiteko gaitasuna...; alor horiek guztiak landu daitezke? Nola?**

Praktikaren bidez, praktika eta praktika da kontua. Haur batek bere adineko kideen au-

rrean magia apur bat egiten badu, kide horiek harritzeko gaitasuna izango du; eta adin nagusiagokoak harritzeko adina magia ikasten doan neurrian, autoestimua, enpatia, adierazkortasuna eta aipaturiko trebetasun horiek guztiak sortzen eta garatzen hasiko da pixkanaka.



beste ikuspegi batetik begiratuko diete gauzei. Magiak erakusten du egia absoluturik ez dagoela, eta gauzak erlatibizatzen laguntzen du..

**Haurrek eta gaztetxoek berehala jartzen diote magoari arreta, ezta? Zer dauka magiak haien atentzioa erakartzeko?**

Batetik, mago on batek ez ditu trikimailuak soilik menderatzen eta erabiltzen. Mago on batek, bene-benetan, antzezle zoragarri bat izan beharko luke. Beraz, antzerkiari magiaren ulertu ezina batzen badiogu, haur edo gazte izan nahiz adineko edo nagusi izan, zaila izaten da magiari arreta ez jartzea, edonoren kasuan.



**Magiako trikimailuekin, gazteei beste ikuspegi bat hartzen lagun dakiekeela diozu. Nola erabiltzen da ilusionismoa gazteei beste ikuspegi bat sorrarazteko?**

Errege Magoak direla, Olentzero dela, marrazki bizidunak direla, txikitant, ilusioen mundu magiko batean bezala sentitzen dira umeak. Baina, gero, 4 edo 5 urte egindakoan, arrazoa eta ulermena lekua hartzen hasten dira. Magiaren bidez, lor daiteke arrazoiak esaten duena, beharbada, ez dela egia ikustea, eta, horrela, hurrengo batean,

**Zertan lagun diezaioke magia apur bat jakiteak eskola eman behar duen irakasleari?**

Esan bezala, arreta sortzen eta erakartzen laguntzen du magiak... "Orain isilik egoten bazarete, gero magia egingo dizuet...". Umeen jakin-mina lantzeko ere oso baliagarria da magia, baina, batez ere, irakaslea majoa (magoa) bada, ikasleek asko eskertzen dute.



# Gipuzkoako URTXINTXA

## Txantxa, musika, umorea eta animazioa...

### “Alaitasun, sormen, umore, irudimen eta adiskidetasun mundu bat da jolasa”



**Jaime ALTUNA**

URTXINTXAKO JOLASEN ARDURADUNA

**Parte-hartzaileek ongi pasatzeaz gain, hurrekin egiteko jolas-bildumatxo bat ikastea da ikastaroaren helburua. Izan ere, jolasaren bidez garatzen du haurrak garapenerako behar duen guztia. Gainera, eta hau xe da garrantzitsuena, zoriontsu izan gaitezke jolasaren bidez.**

*Txantxa, musika, umorea eta animazioa...*

**Txantxarien jolasak ikastaroa proposatu duzue. Zer da, baina, Txantxariak?**

Txantxariak euskarazko jolasak zabalteko sortu ditugun pertsonaia batzuk dira: musikari talde bat da Txantxariak, hain zuzen. Lau kidek osatzen dute taldea: Mari Txipi, Arantxa Zabalete, Antxon eta Txantxibiri Kamino. Herri herri dabilta, musika joz.

Gogoko dituzte musika eta dantza, baina, bereziki, jolastea gustatzen zaie. Hala, herriz herri dabilta, eta abesteko, dantzatzeko eta jolasteko hainbat jolas proposatzen dituzte. Herri batera iriste-

an, abestiak eta dantzak proposatzen dizkiete han daudenei.

**"Haurrak jolasa berea du" esaera zaharraren gainera bizitzak berak dituela bere jolasa, alaitasuna, umorea eta adiskidetasuna diozue zuek. Nola ikus diezazkioke haurrak bizitzari ezaugarri horiek?**

Azken urteotan, lan handia egin da euskarazko jolasak biltzeko, sortzeko eta zabaltzeko. Hainbat taldek eta pertsonak parte hartu dute lan horretan, eta lehen emaitzak ikus daitezkeela usate dugu. Duela hamabost urte, euskarazko jolas gutxi ezagutzen ziren, eta transmisioa nahiko txikia zen. Gaur egun, irakasleek, aisialdiko hezitzaileek eta guraso batzuek euskaraz jolasteko tresna gehiago ezagutzen dituztela esan genezake. Kanean ere, ohikoago da haurrak euskarazko kantekin jolasten ikustea. Dena den, lan handia dago egiteko oraindik. Euskaraz jolasteko tresnak etengabe transmititu eta zabaldu behar dira, inguruan ditugun beste hizkuntzen indarra oso handia baita. Horrekin batera, jolas berriak sortu behar ditugu euskaraz, eta haurrak sormen horretan trebatu beharko genituzke. Hizkuntza bizia nahi badugu, txikitatik zabaldu behar diegu euskaraz sortzeko aukera, eta, horretarako, oso bide egokia da jolasa.


**Haurrak euskaraz jolasteko tresnak eskainiko dituzue. Zuen ustez haurrek ba al dituzte nahikoa tresna kanean euskaraz jolasteko? Eta, tresnak badituzte, horrek euskararen erabileran eragingo lukeela uste duzue?**

Plan zehatzen eta eduki egituratu

lagungarri den zerbait eskaini nahi dut. Idazketaren alde sortzailea lantzean, joko eta dihal izango dute, beraien nahi eta beharretara egokituta.

**Aurten eskainiko duzuen ikastaroa praktikoa izango da. Zein motatako jolasak proposatuko dituzue?**

Jolasak ikasteko modurik eraginkorrena jolastea da. Beraz, gure ikastaroa oso praktikoa izango da. Ikastaroan parte hartuko dutenek kantatzeko, dantzatzeko, salto egiteko, barre egiteko eta beste hainbat gauzatarako prest etorri behar dute. Aurtengorako, kanean euskaraz jolasteko jolasak ekarriko ditugu: imitaziozkoak, taldean dantzatzekoak, jausgailuarekin egitekoak, abestekoak, animazio-jolas erraldoiak... Ikastaroko parte-hartzaileek ondo pasatzeaz gain, hurrekin egiteko jolas-bildumatxo bat ikastea da gure helburua.





## Atera al diezaiokegu etekinik publizitate-kanpaina bati, ikuspegi hezitzaile batetik



“Etekina” hitza da gakoa publizitate-kanpaina guztietan, edo, beste modu batean esanda, publizitate guztia “etekina” lortzera bideratzen da.

Gertatzen dena, ordea, zera da: jasotzen dugun publizitatearen ehuneko handiena (ia guztia) publizitate komertziala da, eta oso ehuneko txikia da publizitate berriemailea edo soziala. Horren ondorioz, publizitate hitza mezu “komertzial-kontsumista” batekin lotzen dugu.

### **Publizitatea erreminta bat da, edonoren eskura dagoena.**

Gure ideiak, asmoak, aldatu nahi ditugun ohiturak, helburuak, eta abar modu deigarrian adierazten eta zabal-tzen laguntzen digun erreminta da. Kontua da, normalean, guk publizitatea jaso egiten dugula: publizitate-har-tzaileak gara, eta oso gutxitan sortzai-leak.

### **Publizitate-kanpaina baten helburua hezitzailea bada, haren ondorioak hezitzaileak izango dira.**

Horixe da publizitateari ateratu die-



**Nerea GARMENDIA**

PUBLIZISTA ETA SORTZAILEA

zaiokegun etekinik nabarmenena, edo berezko duen etekina. Baina publizitate-kanpaina bat garatzeak badu beste etekin mota bat ere, oso prozesu interesgarri, aberasgarri eta pizgarria baita publizitatea sortzea: beharrezkoak ditu talde-lana, informazioa biltzea, ulertzea eta sinpletzea, edota modu sortzailean eskaintzea; komunikazioa sortu behar du. Jasotako ezaguera horiek gogoia eta grina pizten dituzte, eta erronka baten au-

rean gaudela sentitzeak interesa eta parte-hartzea areagotzen laguntzen du. Oso prozesu bizia da.

Beraz, atera al diezaiokegu etekinik publizitate-kanpaina bati, ikuspegi hezitzaile batetik? Bai, eta bi etekin mota izango dira horiek, gainera.

### **1. Publizitate berriemaile edo soziala: publizitatea gure helburuen alde lan egiten duen tresna gisa.**

Zer da publizitate soziala? Publizitate sozialaren helburua ez da salmentak suspertzea. Publizitate sozialak, oro har, informazioa zabaltzea du helburu, ohiturak aldatzea edo jendearen atxikipena lortzea.

Normalean, telebista, irrati edo egunkarrietan ikus ditzakegun kanpaina sozialak erakundeen kanpainak dira, edo irabazi asmorik gabeko erakundeak abian jarritakoak.

Lehenengoek gure ohiturak aldatu nahi izaten dituzte, edo gure mundua ikusteko era moldatu nahi izaten dute: birziklapenaren inguruan gure kontzientzia landu, emakumeen eta haurren aurkako erasoaren aurrean gure



kontzientzia garatu, drogen kontrako mezua zabaldu, gaixotasun kutsakoren aurrean informazioa eskaini, joera arduratsu bat izaten irakatsi, jokabideak irakatsi, eta abar.

Kanpaina batzuen helburua mementokoa da; beste batzuek, aldiz, poliki-poliki, gure kontzientzia edo ohiturak aldatu nahi izaten dituzte, eta berorien helburua epe luzera zuzentzen da, beraz.

Irabazi asmorik gabeko erakundeek, normalean, sentsibilizatu egin nahi izaten gaituzte, eta gure atxikipena eta diru-laguntza lortu nahi izaten dute.

Baina zer gertatzen da erakundeen edo irabazi asmorik gabeko elkarten babesik ez duten gai sozialekin? Zer gertatzen da gure eskoletan gertatzen diren arazo edo egoeretan sortzen diren komunikazio-beharrekin?

Irakasleek eta ikasleek beren alde izan behar dute publizitatea tresna gisa, beraien beharren esanetara, adierazi nahi dutena komunikatu ahal izateko.

Eta zer komunikatu nahi dute gure haurrek? Gure irakasleek? Gure hezkuntza-sistemak?

Zer esan nahi dugu bullying-aren aurrean? Zer esango diogu bullying-a jasaten duenari? Bullying-a egiten duenari?

Zer esan nahi dugu sare sozialei buruz?

Zer arazo txiki baina desatsegin du-

gu gure taldeetako ikasleen artean? Nola aurkeztu dugu arazoa, eta nola bilatuko dugu irtenbidea?

Eta nori zuzenduko gatzaizkio? Ikasleei? Irakasleei? Gurasoei? Gizarte-ari?

Publizitate-kanpainen bitartez, saia gaitezen arazo edo egoera horiek aldatzen.

### **Ekoiztea eta plazaratzea, eskola-eremu paregabea**

Publizitate komertzialean, diru asko behar da kanpaina bat prestatzeko: alde batetik, publizitatea gauzatzeko (kartelak diseinatu eta inprimatu, telebista-iragarkiak ekoizti, irrati-iragarkiak grabatu); eta, bestetik, publizitate hori plazaratzeko (kartelak autobuseko geltokietan edo hiriko publizitate-totem eta paretetan jarri, telebistan eta irratan iragarkiak eman...).

Eskolek baliabide tekniko guztiak dituzte publizitatea gauzatzeko.

Diseinua eskolako ordenagailuetan gara daiteke, arte ederretako irakaslearen laguntzarekin. Esku-orriak, kartelak edo beste inprimaki mota batzuk ekoizteko, eskolako inprimagailuak daude. Telebistako iragarkiak (eta irrati-iragarkiak) grabatzeko, berriaz, eskolako ekipoak.

Egindako kartel, iragarki eta publi-

**Beharrezkoak ditu talde-lana, informazioa biltzea, ulertzea eta sinpletzea, edota modu sortzailean**



**eskaintzea; komunikazioa sortu behar du.**

zitate hori plazaratzeko, hainbat euskarri dituzte: eskolako, gelako, jolastokiko eta abarretako hormak, kartelak itsasteko; eskolako telebista, irrati, web-orria eta ikasleen blogak nahiz sare sozialak, iragarkiak emateko. Ikasleak eta irakasleak ere euskarri izan daitezke (txapak edo eranskailuak eramanetz).

Egoera, beraz, ideala da.

Eta bada orain arte kontuan izan ez dugun puntu bat, publizitate-kanpaina baten arrakastan guztiz erabakigarria dena: kanpaina prestatu duen lan-taldearen grina.



**Ezinbestekoa da publizitatearen munduko gako batzuk ezagutzea gure gizartean, alde batetik, tresna hori gure alde erabili ahal izateko, eta, bestetik, egunero eta uneoro jasotzen dugun publizitatearen aurrean jarrera kritikoa izaten ikasteko.**

**2. Publizitatea prozesu aberasgarri gisa**

Publizitatea sortzea oso prozesu aberasgarria da, eta inplikazio handikoa.

Publizitate-kanpaina bat abian jartzeko orduan, ezinbestekoak dira bi elementu: abiapuntua eta helburua. Abiapuntua aldatu nahi dugun egoera, arazoa edo zuzendu nahi dugun jarrera izan daiteke. Eta helburua, beraz, publizitate-kanpaina egin eta gero lortu nahi duguna.

Ezinbestekoak dira bi elementu horiek. Biak ahal den zehaztasun handienarekin deskribatu behar ditugu, helburuak ahalik eta ondoen bete daitezzen.

Askotan, ez da erraza abiapuntua zein den zehaztea. Komunikazioaren gizartean gaude, baina, askotan, komunikazio-hartzaileak besterik ez gara (publizitatearekin gertatzen zaigun bezala); ez gara komunikazio-igorleak, eta horrek asko zailtzen du sentitzen ditugun beharrak edo nahiak hitzetan adieraztea, egoeraren deskribapena egitea.

Publizitate-kanpaina baten lehenengo pausoa, beraz, abiapuntua zehaztea da. Horretarako, gure ikasleekin eta irakasleekin "brain storming" bat egingo genuke. Hauxe galde diezaiekegu ideien zaparrada hori has-

teko:

Zer aldatu nahiko zenuke eskolako edo zure bizitzako egunerokotasunean?

Galdera horri erantzunez, egunero-ko bizitzako arazo eta erronka ugari jasoko genituzke. Denon artean horietako bat aukeratu ondoren, hurrengo pausoa publizitate-kanpainaren helburua zehaztea litzateke, ondo zehaztea. Dokumentu batean jasoko ditugu lorpen zehatzak.

Orain arte, gure kanpainaren hasiera eta bukaera landu ditugu. Goazen, orain, kanpainaren garapena lantzerantz, ipuin bat idazten ariko bagina bezala.

Pauso hauek emango genituzke:

- Informazioa jaso.
- Nori zuzenduko gatazka zehaztu, eta, askotariko taldeak badira (ikasleak, gurasoak, haurrak, nerabeak...), bakoitzari zer esan nahi diogun eta nola zehaztu.
- Finkatu nola iritsiko garen talde horiengana, zein euskarri erabiliko ditugun (esku-orriak, kartelak, Interneta, txapak, irratiragarkiak...)

- Egutegi bat prestatu, gauza bakoitza noiz egingo den adierazteko.

- Mezua landu: hitz eta irudietan gauzatu.

- Kanpaina ekoitzi.

- Kanpaina zabaldu.

- Kanpainaren eraginkortasuna neurtu, eta ikusi helburua bete den.

Prozesu horrek lan handia eskatzen du, talde-lana. Denontzat dago egitekoen bat, eta, askotariko lanak izango direnez, bakoitzak berari interesatzen zaion zeregina aurkituko du.

Egindako lana gauzatu egingo da; kalera atera eta aurkeztu egingo da, eta zabaldu egingo da; nabarmenarazi egingo da.

Ezinbestekoa da publizitatearen munduko gako batzuk ezagutzea gure gizartean, alde batetik, tresna hori gure alde erabili ahal izateko, eta, bestetik, egunero eta uneoro jasotzen dugun publizitatearen aurrean jarrera kritikoa izaten ikasteko.

Onera zera da: publizitatean arituz, primeran pasatuko dute, bai ikasleek eta baita irakasleek ere.





# BIZI ABENTURA TXINDOKIKO ITZALEAN



Txindokiko mendiaren magalak **natura, abentura, kirola eta kulturaz** gozatzeko aukera ematen du. **Inguru paregabea eta bizitza urbanotik at**, psikomotrizitea, talde lana, edota kulturaren baloreak lantzeko parada.

**Segurtasuna ikur hartuta**, Txindokiko Itzalak jarduera ezberdinak eskeintzen ditu: **eskalada, zuhaitz parkea, mendi ibilbideak, artzainei bisitak,...**

**Ikastetxe, talde zein famillentzat** naturaz gozatuz, dibertsio eta abenturazko esperientzia ahaztezinak bizitzeko aukera.

Gerturatu **Abaltzisketako Larraltz auzora** edo bisitatu [www.txindokikoitzala.com](http://www.txindokikoitzala.com) webgunea.





# Atzeko atzetik



**Pablo FEO**

LEITZAKO TAILER OKUPAZIONALAREN ARDURADUNA



ETXERAKO HEZIKETA ALDIZKARIA 1. ZENBAKIA

# Hazi Hezi

Urteko lau aldizkarien  
harpidetzak 20 euro balio du.

**hik hasi**<sup>ko</sup>  
harpidedunentzat  
15 euro.

Lehenengo zenbakia doan  
bidaliko zaie orain  
harpidetzen direnei.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

GAIA:

**"Nola erdituko  
naiz?"**

ELKARRIZKETA: LAURA GUTMAN

**"Ama izatean,  
mundua desarmatu  
egiten zaigu"**

SORMENA

**Mursegorekin  
elkarrizketa**





IKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUEK  
KEZKATZEN ZAITUZTE ETA HONEN HOBEKUNTZAN  
LAN EGIN NAHI DUZU?\*

**BERRIMET.** BERRIKUNTZA DIDAKTIKO-METODOLOGIKOKO PROIEKTUEN  
GARAPENA ETA KUDEAKETA HEZKUNTZA ERAKUNDEETAN *Unibertsitate  
Masterra. %100 Online.*



MUNDU GLOBALIZATUAK HEZKUNTZAN ERAGINDAKO  
EGOERA ELEANITZ ETA KULTURARTEKO  
BERRIETARAKO PRESTATUTA EGON NAHI DUZU?

**EKOMU.** HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANIZTUNETAN  
*Unibertsitate Masterra. %100 Online.*



IKASI DUZUN GRADUA IKASI DUZULA, IRAKASLE  
MODUAN IKUSTEN DUZU ZURE BURUA?

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN, LANBIDE  
HEZIKETAN ETA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN IRAKASLE GISA ARITZEKO  
GAITZEN DUEN *Unibertsitate Masterra.*



EUSKAL KULTURGINTZAREN TOPAGUNEAN PARTE  
HARTU NAHI? ATZOKO, GAURKO ETA BIHARKO KULTURGINTZAREN  
TRANSMISIOA. ESPERIENZIAK ETA KUDEATZEKO BIDEAK.

**EKT.** EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA *Aditu Titulua.*